



ARGIA

AGUR BORROKA ARMATUARI

ETA

**ETAk bere burua desegin du kontraparterik gabe
Estatuen errepresio politikoak indarrean dirau
Zikloa ixteko: preso eta iheslarien etxeratzea,
biktima guztien aitortza eta erreparazioa**



Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Bi andreok hamar zentral nuklear gelditu dizkiete Zuma eta Putini

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Zigor Etxeburua
- 19 Imanol Alvarez Itxaro Borda



Aieteko Adierazpenaren sinatzaileetako bat izan zen Gerry Adams irlandarrak ez zuen hutsik egin Kanboko Arnaga Jauregian. DANI BLANCO

- 36 BIZI BARATZEA
- 38 ARGIAKO AZOKA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 45 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: BETTINA CRUZ VELÁZQUEZ
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JESÚS DIGES / EFE

SAKONEAN

- 12 | Agus Rodriguez: "Metroa, AHTren geltokia... Donostia zer izango da, Montecarlo bat?" / Danele Sarriugarte
- 20 | ETaren amaiera: ziklo bat itxi eta beste bat ireki da / E. Eizagirre / G. Bereziartua / X. Letona / M. Asurmendi
- 30 | Putzuak ikastetxe barruan: laborategi naturala ikasleentzat / Mikel Garcia
- 34 | Sakanako batua ikasten: Herriko hizkeratik gertuen dagoen euskara batuaren bila / Garazi Zabaleta
- 41 | Aira banindadi ainara bezala / Itxaro Borda
- 46 | *Gurean*: dokumentalen indarra, animalien egoera salatzen / Gaizka Izagirre

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEA, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BEREAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



Meatzaldea bizirik

Eusko Jaurlaritzak zientzia eta teknologia parkea egingo du Bizkaiko Abanto herrian: 70 milioi euroko inbertsioa eta 241.000 metro koadroko eraikigarritasuna izango ditu. Eta noski, horrelako proiektu handiarekin batera, marketina ere 'makro' tamainakoa da. Dena da onura: lanpostuak sortu, industria 4.0, bizitzak erraztu, inguruarekiko oreka... Baina hara non, onuradun zuzenak ei direnak, Abantoko zenbait herritar, ez dago ados. Meatzaldeak memoria duelako. Zonalde honen mendietatik erauzi zen aberastasuna kalkulaezina da. Oso prezio handian: esklabismoa hasieran, prekaritatea ondoren, langabezia egun, etenik gabeko ingurune naturalaren eraldaketa eta suntsiketarekin batera. Industrializazio garaia ostean, Petronorren tximinia luzeak eta inguruko minbizi-tasa altua dira horren ikur nagusiak. Aurrerabidearen izenean, oraingoan Abantoko herritarrek galduko dute geratzen zaien inguru berde bakarrenetakoa. Irudian: makro-proiektua ezarri nahi duten zelaian piknika antolatu zuten hainbat lagunek.

Argazkia: Sergio Suhigarai · Testua: Axier Lopez



Zein desberdinak haiek ta
guk sortutako manada,
neska gazte bati egin
ziotenak enboscada.

(...)

Guztia argi zegoen,
argiegi beharbada,
salatzeak merezi du
hartua nuen patxada.
Hiru hilabetez joan da
alduatuz bihozkada
ta gaur berriro diogu:
“Honezkero nahikoa da!”

Emakume eta gizonak
zein dugu konbibilitza,
ezetza ezetza bada
non dago tolerantzia?
Bost gizon eta neska bat
ez bada biolentzia
amorruek hartzen gaitu,
nik galdu dut pazientzia.
Beste bat izan behar da
desioen esentzia,
borondateak markatu
behar du diferentzia:
nire desioan dago
aurrekoen lizentzia
eta berdin digu zein den
epaileen sententzia.

Behintzat gai honek
behar bezala hartu du,
txarrenerako prestatuta
ta gogor hartu gaitu gu.
(...)

Arazoak ote dauka
geure sistema sorburu,
agintari lez hainbeste
matxista ta artaburu.
Mundua aldatzea da
ameslarion helburu
eta saiatzen bagara
lortu ere egingo dugu.

Onintza Enbeita. Habana



SEASKA

Ikasleek entzunarazi dute Seaskaren kexua

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Orotara 7.000 lagun bildu ziren maiatzaren 4an Baionan, Seaskaren alde. Hauetan, 3.000 ikaslez gora, manifestazioaren buruan, danborrada burutuz. Heldu den urterako Frantziako Hezkuntza Ministerioak Seaskari bideratu nahi ez dituen 25 irakasle postuak lortzeko lehen mobilizazioa izan dute hau.

Etxean eraikiriko danborra esku artean, klasean edota etxean behin eta berriz errepikatuz ikasiriko kantua abestuz, guraso zein irakasleak lagun, haurrak izan dira manifestazioaren buru. Kantuz eta dantzaz, deusetaz beldur, baxoa euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzeko baliatu dute unea lizeokoek; gisa berean, kolegioetakoek, brebetarentzat.

Danborradaren doinuari hitzak gehitu dizkiote: “Deiadar bat bada Baionan, kasu kasu ikastola kexu; entzun gaitzakezu, hemen gira kexu, irakasle eskasa Seaskan!”.

Postura eta determinazio argia du Seaskak: “Jakín dezatela 40 ala 50 ikasleko gelak ez ditugula onartuko”. Manifestazio bukaeran, Mirentxu Ibargarai irakasleak Frantziako Hezkuntza Ministerioari luzatu abisua argia izan da. Heldu den urtean 240 ikasle berri gehiago ukanen dituztela, 25 irakasle postu gehiago behar ditu Seaskak. Hezkuntza Ministerioaren ordezkari den Pierre Barriere Pirinio Atlantikoetako ikuskariak jakinarazi duenez, ez die batere bideratuko. Seaskaren beharrei elkor segituz gero, mobilizazioekin segituko dutela abisatu dute Ibargarai zein Paxkal Indo Seaskako presidenteak: “Gure hezkuntza sistema defendatuko dugu”.

“Torturatoi ere zor zaigu gertatu zitzaigunaren aitortza”

ENeko COMPAINS, TORTURAK SALATU DITU

“Nirea bezalako infernua pasatu duten milaka euskal herritarrengatik” salatu ditu torturak Eneko Compainsek. Iruñeko Auzitegian deklaratu du, lau guardia zibilen kontra. Justizia auzitegietan duen itxaropena “hutsaren hurrena” dela dio eta herritarren eta euskal erakundeen arteko elkarlanean jarri ditu indarrak. “Asko hitz egiten ari da egindako mina aitortzeko beharraz, eta aldarrikatu nahiko nuke torturatoi ere zor zaigula gertatu zitzaigunaren aitortza, egiaren aitortza eta erreparazioa jasotzeko eskubidea”. **2018-05-02**



FAUNA PUBLIKOA

"Euskal Errepublikaren proiektu politikoa inoiz baino indartsuagoa da"

ETA, desagitearen aurreko azken elkarrizketan (Gara)

Wishful thinking



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria


ETAr azkeneko elkarrizketa egin dio Gara-k. Ekainean publikatuko da osorik liburu batean, aurrerapena maiatzaren 7an argitaratu dute eta erantzunen artean esplikatzeko du behin betiko amaiera-prozesua nola gauzatu den, baita beste gai arantzatsu batzuei buruz -biktimak sailkatzeko irizpideak, adibidez- erakunde desarmatuak duen ikuspegi ere.

Historiaren puntu honetara iritsita, hainbeste burdina, berun eta bolbora atzean utzita, izango dira batzuk -asko- azalpen horiei arretarik eskainiko ez diotenak, minagatik ez bada, kapitulua pasa nahi dutelako. Baina nik behintzat, uste dut komeni dela perspektiba luzeagoa edukitzea, 60 urteko zikloak ez baitira egunero ixten eta azken uneraino ETAn jardun dutenei irakurtzeak badu baliorik, noizbait galdera handietako bat argitu nahi bada: zergatik gertatu zen hau guztia?

Erantzun erabatekorik ez dago, baina euskal errepublikari buruzko esaldi honetan sumatzen da urte askoan ETAn errepikatu den pentsatzeko modu bat, ingelesez *wishful thinking* esaten zaiona: errealitatea aztertzea gusutako litzaizukeen egoeratik abiatuta, ez muturren aurrean daukazunetik. Labur esateko: ez dut uste helduleku sendo bakar bat dagoenik esateko euskal errepublikaren proiektua indartsu dagoenik; are gutxiago "inoiz baino indartsuago".

Problema handiena ez da, nolanahi, ETak egoera politikoa horrela analizatzea, azken finean pertsiana jaitsi aurreko adierazpen bat besterik ez da. Arazoa da, *real politik* diskurtsoetan aski trebe agertzen hasi diren arren, ezkerreko politikari abertzale zenbaitek ere antzeko eskemen arabera pentsatzen jarrai dezakeela. Pentsatzeko modua aldatzea zailagoa baita, batzuetan, estrategiak aldatzea baino. ■

EZ HANKA EZ BURU!



ANALISIA



Maiatzaren 4an Donostiako epaitegien aurrean lehen aldiz atera dute kalera Cabezudoren aurkako salaketa.

30 urtez emakumeak bortxatzen boterearen hegalean



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIA: JOSE IGNACIO SALAZAR

Titularra idazte hutsak dardarizoa eragiten du. Kote Cabezudo (Donostia-1948), Donostiako elite politiko eta enpresariaren inguru sozialean mugitzen zen argazkilaria da –Donostiako alkate ohi Odon Elorzarren egunerokoari buruzko liburu baten argazkilaria izan zen, besteak beste–, *jet set* donostiarraren jaietan oso ezaguna, *Diario Vascon* argazkilari aritutakoa eta 90eko hamarkadan Donostian ‘modelo guztien argazkilari’ gisa deitua. Bada, 30 urteko jardun profesionalaren ostean, 2013ko urtarrilean Cabezudoren aurkako auzi judiziala abiatu zuen emakume batek. Egun, ondorengo delituak leporatzen dizkiote: iruzurra, sekretuak ezagutzera ematea, irainak, mehatxuak, sexu gehiegikeriak, umeen pornografia sortu eta hedatzea, adingabeak galbideratzea eta bortxaketa. Honezkero 16 emakume daude salaketaren atzean, baina zalantzarik ez da kasu gehiago agertuko direla.

Bost urte hauetan kalean libre izan da Cabezudo. Maiatzaren 4an agindu zuen Julian Garcia Marcos epaileak behin-behine-

ko espetxeratzea, berak berriki kasuaren ardura hartu ostean. Izan ere, aurreko bost urteetan biktimek 10 aldiz eskatu zuten argazkilaria espetxean sar zezaten, baina eskaera guztiak atzera bota zituen Ana Isabel Pérez Asenjo epaileak, argazkiak, bideoak eta hainbat biktimaren kontakizunak aurrean izanik ere. Orain Asenjo epailea auzitik kanpo utzi du EAEko Epaitegi Nagusiak, tramitera onartu baitu biktimen abokatuak Asenjoren kontra jarritako salaketa. Salaketa horretan leporatzen zioten emakumeei egindako sexu erasoen irudiak Internetetik kentzeko ezer egin ez izana. Biktimek eta abokatuak sarri salatu dutenez, “14 euroren truke edozeinek eros eta ikus zitzakeen Kote Cabezudok umei egindako zenbait eraso eta bortxaketa”.

Justiziaren inoperantzia ez da kasu honek duen alderik ilunena. Hainbat biktimek Donostian pertsona ezagun eta botere-tsuek –politikari eta enpresariak tarteko– eratutako pederastia-sare bat salatu badute ere, orain gutxira arte kasua oharkabean pasa da komunikabideetan zein kalean. Cabezudoren biktimen sostengurako kide batek salatu duenez, “beldur handia izan da orain arte kalera atera eta egia kontatzeko, Cabezudoren atzean boteredun asko daudelako”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Langileak ere arduradun dira



Juan Mari Arregi

LABek eta CCOOk eskatu dute “iker dadila zehatz eta mehatz” Eulen enpresako 48 urteko langile baten heriotza, Iruñeko Arrotxapean etxebizitza bat margotzen ari zela. Jakin nahi dute, lurrera erori zenean prebentzio neurri egokiak harturik ote zeuden eta salatu dute enpresaren aurreikuspen falta. LABen esanetan, prekarietateak eta lan baldintza kaskarrek eragiten dituzte halako istripuak, eta administrazio publikoei eskatu die beste aldera ez begiratzeko eta baliabideak jartzeko, istripu horiek eragozteko neurriak har daitezken. CCOOk, bere aldetik, araudia zorrotz bete dadila eskatu du, batez ere enpresen jardura koordinatzeko orduan, ezbehar asko hainbat enpresek bat egiten duten lantegietan gertatzen baitira.

Sindikatuaren erreakzioa langile bat hiltzen denean gertatu ohi da. Eta egia da enpresak eta administrazioek erantzukizun larria dutela, prebentzioan, lan baldintzen ikuskaritzan eta inbertsioak egiteko garaian, izan istripuz nola gaitasunez, heriotza gehiago izan ez daitezken. Langileen jardunari ere begiratu behar zaio ordea, baita enpresa batzorde eta sindikatuak ere, jakiteko noraino iristen den beraian ardura heriotza horiekiko.

Zer egiten dute langileek berek, batzordeek eta sindikatuak, enpresako lankideak ikusten dituztenean prebentzio neurriak bete gabe lanean? Ohartarazi eta derrihortzen dituzte neurri horiek hartzera? Zer egiten dute segurtasun arauak hausten dituzten kontratatik ikustean? Beste aldera begiratu euren enpresakoak ez direlako? Enpresak eta administrazioak dira erantzule, baina langileek, batzordeek eta sindikatuak badute ardurarik.



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Nekane Txapartegi: "Preso politiko guztiak askatu"

ZURICH. Maiatzaren 1eko Suitzako manifestazio nagusiak "Preso politikoak: Askatasuna" izan du leloa eta Nekane Txapartegi aritu da hizlari, milaka lagunengandik aurrera. Munduko preso politiko guztien askatasuna eskatu, Espainiaren errepresioa salatu eta Rojavarekiko elkartzasun keinuz bukatu zuen. Espainiaren estradizio aginduari erantzunez, Suitzako kartzelan preso egon zen 17 hilabetez. Bolada batean Suitzako preso politiko bakarra eta torturatua, estradizioaren aurkako Free Nekane kanpainak batu zituen ezkerreko borroka anitzenak.

Hilketa eta bortxaketa matxistek ez dute etenik

Argia

Bikotekide ohiak hildako emakumea Donibane Garazin, gizon batek bortxatutako emakumea Tolosan eta bortxaketaren beste biktima bat Iruñean; indarkeria matxistaren adibide gordinak dira, azken egunotan Euskal Herrian jazoak.

Autoak harrapatuta

Apirilaren 28an, emakume bat kotxearekin harrapatu zuen bere bikotekide ohiak. Biderdarten ere, emakume bat hil zuen gizon ezko bikotekideak, maiatzaren 1ean. Hipotesi bat baino gehiago zabaldu dira, baina hilketa salatzen elkarretaratzeak egin dituzte.

Bortxaketa Tolosan

Apirilaren 19an izan zen bortxaketa, Tolosan, eta biktimak 26an jarri zuen salaketa. Erantzaintzak egun horretan atxilotu zuen erasotzailea. Udalak eta mugimendu feministek deituta, elkarretaratzea egin zuten, "indarkeria sexistarik gabeko herri baten alde" lelopean.

Ezkaratzean

Beste bortxaketa bat izan zen Iruñeko Donibane auzoan: emakume bati eraso egin zion gizon batek, maiatzaren 6an, 5ak aldera. Etxera zihoan emakumea, gizonak eraso egin eta atari barruan bortxatu zuenean. Emakumeak salaketa jarri zuen Iruñeko Udaltzaingoa.

TURE ESKU DAGO



13.557

herriarrek eman dute botoa EAEko 22 herritan egin dituzten herri-galdeketa. Deituta zeudenen %14,81ak hartu du parte.

%57

parte-hartzailek euskal estatu burujabe bateko herritar izatearen alde bozkatu dute; %1,67k, kontra. Jada 180.000 dira galdeketa parte hartu dutenak.



EUROKORRIKA

Ar Redadeg bretoiaren aldeko Korrika abian den honetan, Europar egiten diren moduko Korriken ordezkariak esperientziak partekatu dituzte. Eurokorrika Hizkuntzen aldeko lasterketen Europar sarea osatu dute, eta adierazpena sinatu.



METROARI STOP

Satorralaia ekimenak deituta, Donostiako metro-pasantearen aurkako elkarretaratzea egin dute hamarnaka lagunek Easoko tren geltokian, Iñigo Urkullu lehendakaria bertan zela aprobetxatuz. "Hirian desadostasun zabala pizten duen egitasmoa gelditzeko" eskatu dute.



AURREKONTUAK

Europar Batasunerako aurrekontuak (2021-2027) aurkeztu dituzte. Besteak beste, Nekazaritza Politika Bateraturako partidak murriztu eta Segurtasunerako, Defentsarako eta mugen kontrolerako diru-partidak handituko dituzte.

Bi andreok hamar zentral nuklear gelditu dizkiete Zuma eta Putini



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Makoma Lekalakala eta Liz McDaid ohoretu dituzte *Goldman* Ingurumen Sariz hamar zentral nuklear gelditu arteko kanpaina eraman dutelako. Hegoafrikako Gobernuak Errusiako konpainia atomiko publikoarekin elkarlanean eraiki nahi zituen. "Herriarrek lortu dezakete agintariek herria ez uztea salgai preziorik onena eskaintzen duenaren eskuetan", azaldu dute pozik mugimendu sozialetan urte luzeak daramatzaten bi ekintzaileek.



Goldman Environment Price sariak irabazleari ez dio lasaitasuna segurtatzen ingurumena birrintzearen kontura aberasten direnen sikarioen atzaparretatik: Peruko oihañak defenditzen zituen Maxima Acuña hil zuten 2016an, urte berean ere Berta Cáceres Hondurasen urtegi baten promotoreei aurre egitera ausartu zena, 2017an Mexikoko Chihuahuan basoa eraisten ari zirenen kontra borrokatua... *Goldman* saria ez da bizi aseguruia, bai justiziaren alde egindako lanaren aitortza garrantzitsua.

Apirilaren 23an San Frantziskon (AEB) burututako ospakizunean eman zituzten 2018koak eta sei sarieretatik bat Hegoafrikako bi emakumek jaso dute: beren herrialdea hamar zentral nuklear berriz hornitzeko planak geldiarazteagatik omendu ditu Goldman Fundazioak Makoma Lekalakala eta Liz McDaid.

2014an, presidentea Jacob Zuma zela, Errusiarekin Hegoafrikako Gobernuak itun sekretu bat sinatu zuen hamar zentral nuklear berri –gaur egun bat dauka martxan, Eskom enpresa publikoak kudeatua– eraikitzeko. 64.000 milioi euroko tratua harrigarria zen, bai sinatzaileei eta bai kopuruei zegokienez. Tratua ondo itxita zegoela zirudien arren, bi andrazkorekin egin zuten topo agintari indartsuek.

"Etxean argindarrik ez daukaten emakumeekin egiten dut lan, argindarra pagatzeko adina ez daukateneekin. Horien beharrak asetzeko moduko erantzuna ez da herritarren zergetatik biloi bat

rand [Hegoafrikako moneta] kostakodenen zentral nuklear sail bat". Horrela mintzo da Makoma Lekalakala, 52 urte, Earthlife Africa ingurumen elkarteke zuzendaria. Errusiako ingurumen elkarteekin bitartez jakin zuen Putinek eta Zumak eskuartearen zekarten itunaren berri: "Plan horrek gure herria kiebrara eramango zuenez, guri zegokigun agintearen gehiegikeriei aurre egitea".

Lekalakalaren elkarteak erabaki zuen gaia kalera ateratzea. Oinarritzko esku-bideak kalera eramaten trebatuta daude Hegoafrikako militante asko, zerbaite-rako balio izan die *apartheid*-aren kontrako borroka gogorrak. Eten gabeko salaketa kanpainari ekin zioten Earthlife Afrikakoek, parlamentuaren eta ministerioen atarietan protestak antolatuz. Baina lagun indartsuagoak beharko zituzten goi mailako aginteei aurre egiteko.

Lekalakalak, Johannesburgoko lider beltza bera, Lurmutur hirian aurkitu zuen bazkidea: Liz McDaid SAFCEI Justizia Ekologikorako Programaren arduradun zuria, borrokazko curriculum aberatseko emakumea hau ere. Bi andre hortzak erakusten gizonen establishmentari, antzeko balio eta jokabideak dauzkaten emakume bi, ondo konpondu zirenak hasieratik.

"Asteazkenero Hegoafrikako Gobernua biltzen denez parlamentuan, presidentea eta ministroak harantz doazenerako gu han biltzea erabaki genuen, agintariei egia esateko. Eta hala egin genuen 2014ko tratua sinatu zutenetik".

Bi urte baino gehiagoz, asteazken guztiz goizean goiz jaikita ministroei ongi etorria egiten zieten, haien auto beltz distiratsuak hurbiltzen zirenean bandera antinuklearrak erakutsiz. Inoiz egokitu zitzaion McDaidi bakarrik egotea euripean. Beste askotan dozena batzuk egoten ziren protestan. Elkarretaratzeak egin zituzten Eskom energia konpainia publikoaren atarian, beste hainbat protesta, manifestazio eta sinadura bilketa ere antolatu zuten.

Eta halako batean, tximistak jo zuen Pretoriako gobernuak. Earthlife Afrikak lortu zuen Hego Afrikaren eta Errusiaren arteko kontratuaren paperaren kopia bat. Laster *Mail & Guardian* egunkariak argitaratu zuen osorik eta herritar askori ireki zitzaizkion begiak.

Putin ere aditua da negoziotan

Pretoriako gobernuak erakutsi nahi ez zuen papera, antza, Moskuko Atzerri ministerioak nazioarteko itunen zerrendan argitaratuta zeukan bere webgunean. Haren berri Johannesburgeko Earthlife Africa elkarteari Ecodefense mugimenduko Vladimir Slivyakek jakinarazi zion.

2014ko irailean Jacob Zumak osasun kontu batengatik Moskura bisita egin zuen. Bide batez han Vladimir Putinekin elkarriketatu eta handik aste pare batera Hegoafrikako Energia ministro Tina Joemat-Petterssonek eta Rosatom konpainia publikoko buru Sergey Kirienko jeneralak sinatu zuten kontra-



Goldman Fundazioak zabalduko irudian, Liz McDaid (ezkerretan) eta Makoma Lekalakala kaleko ekintza batean. "Ingurumenari lotutako gatazka moduan hasi zena –esan du McDaidek–, orain bilakatu da etorkizun justuago baten aldeko mugimendu, herritarrok zutitu eta gure gobernuari demokrazian erantzukizunak eskatzeko. (...) Kontratu nuklearra ez zen inoiz oinarritu energia kontuetan: pertsona batzuen aberastu nahia zen kontua".

tua. Herritar asko bost hilabete geroago *Mail & Guardian*en leitu zutenean zur eta lur geratu ziren. Hegoafrikarrak urte luzetarako Errusiari eskuak lotuta gertzen baitziren

Kontratuak ezartzen zuen, *de facto*, Hegoafrikako zentral nuklearren inguruko afera guztietan Rosatom konpainia errusiarrak beto eskubidea edukiko zuela, gutxienez 20 urterako. Aldiz, batean edozein istripu gertatuz gero, Errusiari ezingo zitzaion inolako kalte-ordainik eskatu. Hitzez hitz: "Hegoafrika izango da herrialdean bezala atzerrian [zentral nuklearrek] eragindako edozein kalteren erantzule bakarra".

Rosatomek jasoko zuen tratu berezia zerga eta bestelako finantziazio gaitan. Bestalde, Hegoafrikak inoiz nahiko balu zentralotan garatutako teknologiaren bat esportatzea, Errusiaren baimena

beharko luke edozertarako. Hori gutxi balitz, papera filtratu zenean Hegoafrikako agintariek berretsi zuten Errusiaren konkurrentzia diren Txina eta Frantziarekin ere Hegoafrikako agintariek hitzarmenak sinatuak zituztela, gobernuak ezkutuan atxikitzen zituenak.

Makoma Lekalakala eta Liz McDaid, beren mugimenduetako jendeak esan nahi baita, bi urtez herrialde osoa hitzaldi eta mobilizazioz astintzen saiatu ziren. Arazo ezberdinen inguruan mugitzen diren talde hegoafrikar askoren koalizioa jostea lortu zuten: emakume taldeak, gazteenak, ustelkeriaren aurkakoak, sindikatuak, fededun taldeak, enpresak...

Baina –gutxitan suertatzen den mirakulua– epaitegietatik azaldu zitzairen eguzkia: 2007an Hegoafrikako Auzitegi Gorenak balio gabetu egin zuen Zu-

mak eta Putinek sustatutako kontratua, konstituzioaren aurka zihoalako eta horrelako erabaki handi bat parlamentuak eztabaidatu behar zuelako.

Goldman Fundazioaren saria jasotzerakoan Makoma Lekalakala eta Liz McDaidek beren gobernuari eskatu zioten amets nuklearrak bazter ditzan. Aitortu zuten beldur direla Hegoafrikak finantziazio iturri berriak lortuz gero agintariek berpiztuko ote dituzten zentral atomikoen planak. Kezkatzeko arrazoirik ez zaie falta. Industria militar-nuklearrak ez du deskantsurik, ez Eki eta ez Mendebaldean. Errusiak egunotan itsasoratu du lehenbiziko zentral nuklear mugikorra, Artiko bazterreko Pevek hiriari indarra emateko. Txernobyl eta Fukushima zerbait ikasi duten bakarrak militanteak dira, nonbait. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Metroa, AHTren geltokia... Donostia zer izango da, Montecarlo bat?»

Agus Rodriguez
Barrako barrikadatik

Inoiz joan bazara Donostiako Alde Zaharreko Rekalde tabernara, seguru barraren atzean ikusiko zenuela Agus Rodriguez, irribarrez, batekin edo bestearekin hizketan. Nor da, ordea? Bere hitzetan: "45 urteko gazte bat, euskaldun berri zaharra, donostiarra, semea, aita, anaia, lankidea, batzuetan nagusia, eta militanted". Tabernaren azken urtearen atarian hitz egin dugu berarekin.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Sustraiek eta batez ere amak eragin handia izan omen dute zugar. Nor zen, eta zer eman zizun?

Ama Chipionan jaio zen, Andaluzian, aita bertakoa zuelako, karabineroa gainera -errepublikak garaitik zetorren polizia bat, gero guardia zibilak xurgatu zuena-. Hori da nire jatorria. Amaren ama zumaiarra zen eta amak 8 urte zituela etorri ziren hona. Amak Andaluzian esan ohi zuen euskalduna zela eta hemen, berriz, andaluziarra zela. Hark hezi gintuen hamar seme-alabok, hark transmititu dizkigu gure balore guztiak, horregatik da inportantea.

Zer balore?

Umiltasuna, eskuzabaltasuna... zaila egiten zait hitzak jartzea, egia esan. Solidarioa zen, eta langilea ere bai, sekulako lana egiten zuen etxean eta handik kanpo. Gure amak erakutsi zigun inoiz ez dela poztu behar inoren heriotzare-

kin eta sufrimenduarekin, eta horrek lagundu dezake ikuspegi zabalago bat izaten gaztea zarenean eta pixka bat itsu zaudenean.

Gaztetan hasi zinen militatzen. Nolako giroa zebilen?

Hasteko aipatu behar dut ni beste mundu batetik natorrela, erdararen mundutik, ez nuen ikastolan ikasi, baizik eta eskola publiko batean, Ategorrietan, eta uste dut horrek ere balore onak eman zizkidala, euskara izan ezik. Militantziarekin lotuta, ez dakit zergatik baina argi neukan euskara ikasi nahi nuela. Nire etxean erdaldunak ginen, baina euskal kultura asko jaso dugu, euskal kantak eta abar. AEKn, garai haietan, euskara ikasteaz gainera euskal kulturaz blaitzen zinen, parte hartzen genuen euskal inauterietan, Groseko jaietan... Gazte asanbladan hasi nintzen, gero ibili nintzen Herri Batasunako komite lokalean, Marrumako

txoko elkartean eta ondoren lau urtez egin nuen lan Marruma tabernan. Groseko auzo elkartean ere militatu nuen. Beti esan dut niri egokitu zitzaidala militantziaren une goxoak bizitzea. 80ko hamarkadan Euskal Herria omen zen Europan elkartegintza gehien zeukan herrialdea, eta hori nik bizi izan dut, nire auzoan; gazteak zein helduak ibiltzen ginen denok batera. Altruismoa zen gure

Agus Rodriguez Burgete

Donostia, 1972

Lanbidez, tabernaria. Hainbat herri mugimendutan militatu du, eta gaur egun Libre dinamikako kidea da. Marketineko ikasketak egin zituen, eta munstroak nola funtzionatzen duen ikusteko balio izan omen zion.



armarik eraginkorrena. Sinesten genuen horri ordu pila bat eskaintzen genion, izan auzo elkartea, kolektibo feminista, HB edo dena delakoa, bakoitza berean.

Herriko tabernen auzian atxilotu zintuzten.

2002ko apirilean atxilotu ninduten, eta gure sumarioaren ezaugarri nagusieta-ko bat izan zen asko luzatu zela. Epai-keta hasi zen 2013ko urrian, bost hilabetez joan ginen Madrilera, 2014ko martxora arte. Behin-behineko epaia atera zen 2014ko uztailaren 31n, eta behin betikoa, berriz, 2016ko urtarri-lean. Hau da, ia-ia 14 urtez egon ginen esperoan, jakin gabe zer gertatuko zen gure bizitzarekin, astero sinatzera joa-nez, Espainiako Estatutik ezin irtenda...

Zer leporatu zizueten?

Instrukzioak iraun zuen hamabi urtee-tan mantendu zuten herriko taberne-
diruz hornitzen genuela ETA. Ez zuten inongo frogarik aurkeztu hori erakus-teko. Epaiaketaren azken aurreko egu-nean, ordea, fiskalak jauzi hirukoitz bat egin zuen eta leporatu zigun Batasuna hornitzea diruz. Beste kontzeptu bat as-matu zuten: erakunde terrorista baten mendeko erakunde baten kolaboratzaile. Kontua da 2002ko apirilean atxilotu gintuztela eta beraz epaitu behar zutela hori baino lehenagoko jarduna, baina garai hartan Batasuna legezko erakun-dea zen, 2003ko uztailaren utzi baitzuten legez kanpo Alderdien Legearen bidez. Hortaz, akusazioak ez zeukan inongo funtsik, gure epaiketa erabat politikoa izan zen. Beste kasu askotan bezala. Az-kenean, zortzi urte beharrean, fiskalak bi urte eta bi hilabete eskatu zituen, eta hamabost hilabetera zigortu gintuzten, baina ez ginen kartzelara joan “*dilaciones indebidas*” delako horiengatik, egon ginelako denbora pila bat inongo arra-zoirik gabe epaiaketaren zain lehendabi-zi eta epaiaren zain gero.

Esperientzia horren ostean zer azpima-rratuko zenuke?

Une txarrak izan ziren, noski, beldurra pasa nuen; baina zorionez banuen fami-liaren eta lagunaren babes osoa, eta balo-razio positiboa egin dut askorako eman zidatelako kalabozoan egin nituen 120 ordu haiek, eta gure kasuan ez gintuzte-lako bortizki torturatu eta azkenean ez gaituztelako espetxeratu.



Epaiaketari lotuta, bi gauza azpima-rratuko nituzke. Batetik, ni lehenago lekukoa izana nintzen Gestoren aurka-ko epaiketan eta egona nintzen 18/98 sumarioko saio batean, eta ikusia nuen zelako tranpak egiten dituzten Auzitegi Nacionalean, legea nola estutzen duten, baina gure epaiketan, bost hilabete ho-rietan, izugarriak eta bi ikusi eta entzun nituen. Eta txapuzak... Askotan pentsatu dut lau hileko liberazio bat hartzea eta halako pasadizoak kontatzea; liburu bat egin nezake.

Adibiderik?

Bost hilabetez joan ginen Madrilera as-tero, eta lehenengo asteetan saio asko bertan behera geratu ziren beraien ka-
pripitxo: demagun guk genuela plan-
gintza asteazkenera arte, bada astea-
rtean ez dakit zer lekuko ez zegoela-eta,
etxera joan gintezkeela esaten ziguten.
Epaiaketaren bukaera aldera, ordea, jus-
tu kontrakoa gertatu zen, guk genuen
hotela hartuta astelehen gauera arte, eta
astearte arratsaldean esan ziguten biha-

» “Badirudi Rekalde bezalako espazioak soberan daudela hiri eredu honetan”

ramunean itzuli behar genuela: pentsa, etxera deitu, seme-alabak zituztenen kasuan haien zaintza kudeatu, lanean baimena luzatu... Sekulako nahaspila, jende pila bat ginen gainera, auzipetuak ez ezik abokatuak ere bai. Tira, esan mo-duan asteartean bukatu behar genuen, baina esan ziguten asteazkenera arte geratu behar genuela, geratu ginen, egin genuen goizeko saioa, eta gero berriro arratsaldean joanarazi eta denbora pila bat eduki gintuzten sartzeko zain. Hala-ko batean atsedenaldi bat eskatu zuten, eta kanpoan geundela etorri zen gure abokatueta-ko bat eta esan zigun: “Idaz-kariari entzun diot berehala bukatuko dugula arratsaldeko saioa, Don Angelek



[Hurtado, epailea] Santiago Bernabeura joan behar duelako Champions partida ikustera". Berez arratsaldeko saioak izaten ziren zazpiak arte, bada hura amaitu zen seiretan zeren Don Angelek futbola ikustera joan behar zuen. Ematen du gustu txarreko txiste bat, baina ez da hala, horrela funtzionatzen dute. Horrek erakusten du nola ikusten gaituzten, zer garen gu beraientzat: bortz.

Azpimarratu nahi zenuen beste elementua zein da?

Gauza positibo bat: Madrilgo jendearen elkartasuna. Ikaragarria. Guk agian espero genezakeen edukitzea babes politikoa, baina hauek asmatu zuten modu bat giza babesa antolatzeke, jakinik zenbait hilabetez astero-astero joan behar genuela hara, hotel batera, etxetik kanpo... Epaiketaren ostean ni saiatu naiz hori helarazten hemen, Madrilen badagoela jende benetan solidarioa, arriskuak hartu dituen guri babesa erakusteko. Askotan kexatu izan gara estatuko ezkerrek daukalako 1.000

km-ko sindromea, alegia, Saharan edo Palestinan gertatuz gero ontzat jotzen dutena hemen ez dutela begi onez ikusten. Baina guk akats bera egin dugu, guk ere uste izan dugu: "Ezkertiarrak bai, baina espainolak". Espainolak diren ala ez, hasteko, haiei galdetu behar genieke, eta gero jende horrekin gauza asko daukagu konpartitzeko, eta ez hori bakarrik, haiek konplexurik gabe gaingitu dituzte beste ezkertiar batzuek ipinitako oztupoak guri elkartasuna emateko, eta iruditzen zait zentzu horretan zorretan gaudela, haiekin eta bisitetan babesa edo aterpea eman digun jende anonimo horrekin guztiarekin.

Euskaraz ikasteko gogo bizia zeneukala aipatu duzu lehen, zer dela-eta?

Hainbat oroitzapen dauzkat. Gogoratzen naiz behin joan nintzela Zumaia-ra, nire amonaren herrira, jaietara: Jon Maia bertsoan ari zen eta oso gutxi ulertzen nuen. Eta hor gogoa piztu zitzaidan, zerbait galtzen ari nintzelako sentipena neukan. Ez zen beharra, ez zen obligazioa, gogoa neukan, benetan sentitzen nuen ez nintzela ni, zerbait gehiago behar nuela. Gurasoek ezin zieten seme-alaba guztiei euskaltegia ordaindu -ezta unibertsitatea ere-; orduan bilatu nuen lan bat, ikastola bateko begirale, eta horretarako euskara jakin behar nuenez, ikastolako gurasoen elkarteak ordaindu zidan euskaltegia. Hiru urtez egon nintzen, ondo moldatzeko adina, nahiz eta etengabeko ikasketa-prozesua den, noski. 25 urte beranduago, iaz, C1 maila atera nuen, gauzak horrela daudenez paper batekin demostratu behar duzulako badakizula euskaraz, eta orduan atera nuen. Askotatik harritu ninduen jendearen jarrerak: titulu bila zihoan euskaltegira. Orain dela 25 urte joaten ginen euskara ikasi nahi genuelako, azkenengo mailara iristen zinenean akaso eskaintzen zizuten EGArako prestatzea, baina hori aukeran, eta orain, ordea, horixe bilatzen du jendeak. Uler dezaket, neurri batean, baina hizkuntza akademiaren kutsua hartu nion, eta garai batean ez zen hori.

Esamolde berritu bat entzun izan dizut: jendeak euskaraz egiten diela haurrei, txakurrei... eta tabernariei.

Rekalden gertatzen zait: bi lagun sartzen dira, gaztelaraz elkarren artean, biek egiten didate euskaraz, ez soilik

kafea eskatu baizik eta semeaz galde-tu adibidez, gero urruntzen naizenean kafe-makinara berriro hasten dira gaztelaraz, eta ni kafeekin etortzen naizenean euskaraz egiten didate berriro. Orduan, batzuetan, jolasean ibiltzen naiz, ea haiek konturatzen diren zelako erridikulua den. Gure herrian horixe da tragedia, euskaldun asko dago baina ematen du ohituren aurka ezin dugula jauzi hori egin, jakitetik erabiltzera. Guk egin dugu, etxean eta kuadrillan. Egin daiteke.

Hamasei urte dira Rekalde taberna ireki zenuela. Zer asmo zenuen?

Hasteko esan behar dut lau urtez egin nuela lan Marruma tabernan eta han ikasi nuela lanbidea. Oso eskertua nago. Hain zuzen ere Marruman lan egiten zuen emakume bati esker jakin nuen aurretik Rekalde zeukatenek hura uzteko asmoa zutela, eta xarma berezia zeukala iruditzen zitzaidanez, animatu egin nintzen.

Argi neukan ez nuela taberna arrunt bat egingo, jakiak eta edariak saltzeko postu bat bakarrik, baina ezta ere herriko taberna bat. Esan dezakedan bakararra da nire aurreikuspen guztiak soberan gaingitu direla, eta bilakaera bat izan duela, igual nire bilakaera pertsonalarekin batera joan dena. Hazi egin gara, ikasi egin dugu, esperientzia hartu, eta esango nuke gure bertuterik handienetako bat dela toki irekia dela, jendea eroso sentitzeko modukoa. Rekalden pertsona guztiak dira ongietorriak, jarrerak dira soberan daudenak, jarre-ra matxista, homofobo eta xenofoboak. Bertan lan egiten dugunon ardura da espazioa zaintzea, horregatik daukagu sekulako sukaldariak, kafe ona eta tratu goxoa, baina zuek betetzen duzue edukiz, eta ni harro nago gaur egungo gizarte indibidualista eta kontsumistan halako jendea dagoelako, bestelako mundu batekin amestu eta hori lortzeko lanean diharduena. Rekalde hartu nuen horrelako zerbait nahi nuen, baina bila joan baino, sartzen utzi diot.

Datorren urtean itxiko dituzue ateak?

Oso une kritikoa gaude hiri ereduari dagokionez. Gure esparruan, tabernak jasotzen ari gara bere garaian merkatal zentro handiek denda txikiei egin zieten kaltea: orain etortzen ari diren kanpoko eta Euskal Herriko inbertsio-talde de-



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



lakoak tabernak erosten ari dira, igual horrelako talde batek zazpi taberna dauzka. Hiriaren eta auzoaren arima akabatzen ari diren testuinguru horretan, Rekalde arnas gune bat da, eta gu harro eta oso pozik gaude horretaz, baina, nonbait, Udalean aspalditik agintzen duen hirukoarentzat (EAJ, PSE eta PP), Rekalde bezalako espazioak soberan daude. Ez dakit kontziente diren jendearen haserrearen tamainaz, esparru eta jatorri anitzeko jendearen sumunduraz.

Zer beste alorri eragiten dio hiri eredu horrek?

Donostian bizitzea zail dago: jendea ezin da bere auzoan geratu bizitzen, ematen du guk joan behar dugula periferiara, eta kanpotik datozen turista eta aberatsei utzi tokia. Kezka handia dut. Alarma gorriak piztu behar ditugu. Lehenago zurrumurrua zebilen, baina orain begi-bistakoa da, gauzak ari dira gertatzen, eta are okerragoa da begi-bistan ez dagoena. Boteretsuen *modus operandi* da, Udalaren baimenarekin, gauzak ezkutuan egitea: eraikinak saltzen dituzte eta ondoren erabilera aldatzen, etxebizitza izatetik hirugarren sektoreko erabilpena izatera. Ez ditugu berehalakoan ikusiko aldarmioak eta garabiak,

» “Rekalde pertsona guztiak dira ongietorriak, jarrerak dira soberan daudenak, jarrera matxista, homofobo eta xenofoboak”

baina hori ja badago eta hemendik bi urtera edo egoki deritzotenean egingo dute. Beranduegi izan baino lehen borrokatu behar dugu; begira Metroaren proiektua, AHTren geltokia... Donostia zer izango da, Montecarlo bat?

Antolatzen ari zarete.

Auzo elkarte potente bat dago, horretan dabilena, eta Alde Zaharreko bizilagun naizen aldetik, uste dut auzoan kontzientzia dugunok ari garela auzo elkartearekin eta beste eragile batzuekin batera lanean. Gehien harritzen eta larritzen nauena da badirudiela gazteen edo okupen kontu bat dela hau, baina ez da hala: guztion arazoa da, guztioi eragiten digu. Ez da nik Alde Zaharrean geratu nahi dudala bizitzen, baizik eta ezin digutela gure izaera kendu. ■

Inperialismoaren zuriketa

Mendebaldeak burutzen dituen esku-hartze inperialistak justifikatzeko edota erasotuari babesa ez emateko diskurtsoaren lefroetako bat, gatazken konplexutasuna azpimarratzea eta inperioen arteko tal-kaz hitz egitea da. Errusia inperialista omen da. Akusazio hori Latinoamerikako eskumak egiten duena bezalakoa da, esanez kubatar inperialismoa dagoe-la kontinente amerikarrean. Noski, propaganda baino ez da. Kontua da Latinoamerikan gaztelaniaz hitz egiten denez, Mendebaldeko ezker hegemoni-koak ezin izan duela ezker eraldatzaile latinoamerikarraren kontrako diskurtsoa elikatu. Ekialde Hurbilean, berriz, herrialde sozialista ohietan, Asian edo Afrikan erraz asko defenda daiteke mezu Mendebaldar zalea. Gutxi eza-gutzen dituzten hizkuntzak hitz egiten dituzte eta orain gutxira arte ingelesez edo gaztelaniaz gertakarien bertsio alternatiboak izatea ia ezinezkoa zen. Harresi linguistikoa profitatuz Men-debaldeko sektore progresista askok beraien herrialde inperialisten interesak defendatzen dituzte erasotzaileak eta erasotzak parekatuz.

XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Inperialismoa azaltzeko la-nik erabilienetakoa da Leninen (1916) *Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena*. Liburu horretan, John A. Hob-sonen lanek eraginda, inperialismoa kapitalismoaren ondorio saihestezina bezala aurkezten da, sistema ekono-miko kapitalistaren garapen logikoa eta jarraipenerako tresna bezala. Fase horretan konkurrentzia askea desager-tzen da monopolio kapitalisten nugu-siarengatik, enpresa eta banku gutxi ba-tzuetan kontzentratzen da kapitala eta aldi berean aberastasun finantzarioak, paperezkoak, tamaina handia hartzen du ondasun erreale nahikorik gabe justifikatzeko bere existentzia.



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Gure egunerokoan Errusia zenbat dago presente? Zenbat produktu erosten diegu? Errusiar bankuek gure ekonomia kontrolatzen dute? Federazio eurasiarrak Munduko BPGren %2 baino ez du ordezkatzeko, gutxi-asko dagokiona populazioagatik. Errusiar jaiak noiz diren badakigu?

Leninen aburuz, Inperialismo modernoak bost oinarritzko ezaugarri izango lituzke: a) produkzioaren eta kapitalaren kontzentrazioak bizitza ekonomikoa kontrolatuko duten monopolioak sortzen ditu; b) banketxeetako kapitalaren fusioa industrialarekin eta kapital horretan oinarrituz oligarkia finantzarioaren sorrera; c) ondasu-nen esportazioa ez bezala, kapitalaren esportazioak garrantzi handia hartzen

du; d) mundua beraien artean banatzen duten kapitalisten nazioarteko elkarte monopolisten sorrera; e) munduko lurraldeen banaketa potentzia kapitalista garrantzitsuenen artean gauzatzen da lehengaiak, lan indarrak eta merkatuak lortzeko.

Bost ezaugarrietatik bat bera ere ez du betetzen Errusiak, justu kontrakoa, bere ekonomiak lehengaien dependen-tzia handia du. Halere, azken urteetan subiranoa izateko asmo irmoa azaldu du. Errusia munduan zorpetze tasa baxuenetako bat duen herrialdea da (ez du Mendebaldeko kapitala inporta-tzen); 2001ean banku publikoen kuota %35,9 zen eta %60ra igo zen 2015ean; eta estatuaren partaidetza ekonomian %35etik %50-70era (neurketa iriz-pideen arabera aldatzen da) pasa da Putinen garaian.

Bestalde, gure egunerokotasunean Errusia zenbat dago presente? Zenbat produktu erosten diegu? Errusiar bankuek gure ekonomia kontrolatzen dute? Federazio eurasiarrak Munduko BPGren %2 baino ez du ordezkatzeko, gutxi-asko dagokiona populazioaga-tik. Errusiar jaiak noiz diren badakigu? Akaso Halloween, Santa Claus eta Esker On Eguna errusiarrak dira? Errusiar militarrek ditugu ateetan? Orduan zergatik estigmatizatu nahi da Erru-sia? Hain zuzen ere, Leninek zehazten dituen bost ezaugarri horiek dituzten herrialdeei aurre egiten dielako, bere interes nazionalaren defentsan bai, baina aurre egiten die, besteak bes-te, inperialismoaren esanetara jarri nahi ez diren bere herrialde aliatuei lagunduz, gaur Siria. Latinoamerikako ezkerrek garbi du, Putin ez da izango aurrerakoia, baina bai inperialismoaren aurrean aliatua eta horrela ikusten dute Evo Moralesek, Rafael Correak, José Mujicak, Luiz Inácio Lula da Silvak edo Cristina Fernández de Kirchnerrek. ■

Neoliberalismoak euskarari (I)

Gure herriaren kultur-asimilazio eta -ordezkatze prozesu luzea testuinguru kapitalista batean gertatzen ari da. Merkatu-ekonomiaren ezaugarriek eta irizpideek ere azaltzen dute euskarak jasandako gutxitzea, eta eragiten diote bere garapenari. Batetik, kontsumo-gizartearen logika honek ez duelako euskararen alde (aski) egin, oraingoz behintzat. Merkatuak kulturaren uniformizazioa bultzatzen du, errazago saltzeko, gainbalioa eta aberastasunak biderkatzeko. Lukurreriak hizkuntza nagusiak ederresten ditu, eta euskara gutxiesten du, nagusikeria hori naturalizatuz. Etnozidio kulturala errentagarria zaio. Gainera, euskaldunok ere hezurretaraino sartuak ditugu kontsumismoaren hedonismoa eta nartzisismoa. Handiak erakartzen gaitu, eta produktu arrotzen miresle eta neurririk gabeko kontsumitzaile bilakatuta gaude.

Bestetik, desarrollismo suntsitzailerak lurraldea lego erraldoi bat bilakatu du, pertsonen ezikusierena eginez, paisaiak zementuz berdinduz, eta kultura eraitziz. Aberasteko grina, etekina azkar metatzeko nahia, eta handikeria ditu ezaugarri. Pertsonak objektutzat ditu. Areago, ez die subjektu izaten uzten, boterea baitu oinarri, baita ja-



Zigor Etxeburua Urbizu

KONTSEILUKO TEKNIKARIA

@zetxeburua

Liberalismoak merkatuen desarautzea bultzatzen du, eta logika beretik, euskararen aldeko arautzea saihesten du. Areago, dugun arautzea simulatua dela esan daiteke

rreretan ere (nagusikeria), eta mende-kotasunak eragiten ditu, taktikoki eta zeharka. Euskaldunak enbarazu gara kapitalarentzat, kostutzat hartzen baitu gure eskubideak bermatzea eta gure kultura duintzen laguntzea. Gainera,

eskulan merketzat dituen migratzaileei ez die aitortzen kultura baten jabe izatea, eta ez die euskal kulturara sarbidea errazten.

Azkenik, gogoratu behar da liberalismoak merkatuen desarautzea bultzatzen duela, eta logika beretik, euskararen aldeko arautzea saihesten duela. Areago, dugun arautzea simulatua dela esan daiteke, ez baita ezartzen, sarri (kontratu publikoetan, kontsumo gaian...). Gainera, liberalizazioa muturre-ra eramanez, zerbitzu ugari pribatizatu ditu administrazioak, eta horien euskalduntzea saihestu du, urte luzez. Bide beretik, kudeatzaileek eskatzen diete euskal sortzaileei negarrari utzi eta efizientziaren eta lehiakortasunaren parametroetan jardutea, egoera parekidea balitz bezala. Era berean, euskararen erabileraren normalizazioa uzten dute prozesu naturalaren eta norbanakoon arteko kudeaketaren gain, erakundeek egitekoei iskin eginez, eta hizkuntzaren izaera kolektiboa alboratuz.

Aipatu aldagai horien eragileak sistemaren zutoinak dira. Berriki, Allarteanek bere blogean EAEko Alderdi Popularra seinatu du, hizkuntza-liberalismoaren eredu gisa. Bada, nik beste batzuk ere sartuko nituzke ikuspegi horretan. Zerrendatuko ditugu? ■

 ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen

Sarrionandiaren beltza



Imanol Alvarez
IRAKASLE OHIA

Txikitan, zapata-kutxa bat zulatu, atzean jarri, eta irrati-esatariarena egiten nuen. Etxean telebista sartzearekin batera, pantaila-aldean zuloa zuen paperezko telebista egin nuen, eta handik marraztutako paper-zintak pasatu, telesaioak irudikatuz. Etxekoek beste inork ikusten ez zituen aldizkaritxoak idazteko ohitura ere banuen. Geneetan kazetaritzarako grina neraman, nonbait. Baina, ez. Pentsatu arren, ez nuen kazetaritza ikasi, besteak beste, Euskal Herrian Iruñeko Opusen baino ezin zelako egin. Azkenean, Bilbon geratu, eta bizitzan ia inoiz erabili ez dudana beste lizentziatura bat ateratu nuen.

Unibertsitate garaian, Bilbo Zaharrean ezagutu nituen Pott bandako mutiak: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Joseba Sarrionandia... Ez dut esango lagun bihurtu ginenik, baina nolabaiteko adiskidetasuna sortu bai; eta gaur egun ere, elkar ikusiz gero, agurtu egiten gara. Kontua da behin baino gehiagotan ahalegindu zirela animatzen zerbait idatz nezan argitaratzen zuten aldizkari literarioan. Nire ustez injustuki ahaztua eta gutxietsia izan den Xabier Gereño ere ezagutu nuen garai berean; eta berak berdina, ea zergatik ez nuen nobelarik edo idazten. Nik beti ezetz, literatura ez baininduen erakartzen.

Literaturak erakarri ez, baina kazetaritzak bai. Eta *Anaitasuna* aldizkarian hasi nintzen

laguntzen: tolesten, seiluak jartzen..., zuzendari izendatutakoan, Tomas Trifolek "bestelako" erreportajeak egitea eskaini zidan arte, aldizkaria eraberritu nahian-edo, serioegia baitzen. Nik baietz. Gehienbat antzerkiaz, kabaretaz eta horrelakoez idazten nuen, hori baitzen gustukoen nuen. Behin hasita, ezin gelditu, eta lana beste bat izanagatik ere, bizitza osoa eman dut medio askotan kolaboratzen, prentsa idatzian zein irrati-telebistetan, euskaraz zein erdaraz.

Behinola, Harkaitz Canori anekdota bat entzun nion, Paul Auster nola ezagutu zuen kontatuz. Izugarri gustatu zitzaidan. Gogoratzen dut amaitzen zuela esanez: "Ni naiz Paul Auster zapaldu zuen gizona". Bada, jubilatutik aurretik eman nuen azken klasean, halako batean, burura etorri zitzaidan ia inoiz kontatu ez dudana neuri gertaturiko anekdota. *Anaitasuna*-n nenbilen garai berean, Joseba Sarrionandia *Zeruko Argia*-n zen kolaboratzaile. Egun batean, ez ei zuen astirik asteroko artikulua idazteko, eta eskatu zidan haren ordeztu idatz nezala. Horrela publikatu zen nire lehen artikulua astekari honetan, nahiz eta ez dudana gogoratzen neure izenaz edo bereaz agertuko zen. Edonola ere, Cano parafraseatuz, horrelaxe amaitu nuen nire azken klase hura, esanez: "Ni naiz Joseba Sarrionandiaren beltza izan zen gizona". ■

Arnega



Itxaro Borda
IDAZLEA

ETak bere ekitaldia (*sauterie politique*?) egiteko Kanboko Arnaga gaztelu polita hautatu du, prestigioa eta bere biktima bakar bati onartu ez dion sozietate zibilararen babesa bilatuz. Joan dira, pistolak bi kaxetan frantses polizia iruzirik, lau hamarkadaz beraiekin eruz deus gertatu ez bailitza eta soilik biktimen laurdenari barkamendu eskaturik: mikatza ezta? Zergatik ez dituzte urrats horiek Euskadiko lurraldean eraman? Edo Espainiakoan? Frantzia al zuen ETak nagusiki partida?

Borroka armatuarekiko lotura intimoa ez dutelako erabat arnegatu dukete aukeratu Arnaga izeneko egoitza beren azken dantza eskaintze-

ko. Gusturik hoberenean. Euskaldungoaren zati bat alde dute beti eta eragin dituzten sarraskien irudi odoltsuak begi argiz ikusteko ez dira oraino prest, gatazkan parte-hartze zuzenik ez zuten mina, baita parte-hartze zuzena izan bide zuten guardia zibil, polizia, armadako graduatu, kazetari, politikoa ere... den-denak gure zauriaren oinarrian.

Abertzale mundutik at ETaren desagitea indiferentziarik handienean pasatu da. Beranduegi jin delako. Historia latz horretatik ezer ez da geratuko, memoriak dolorea baizik ez duela atxikiko, bereziki "etsai" deitzen zituzten haiena. ■





ETA-REN AMAIERA

ZIKLO BAT ITXI DA ETA BESTE BAT IREKI

Genevan irakurri dute ETaren amaiera iragartzen duen agiria, erakunde armatuaren ia 60 urteko ibilbidea bukatutzat emanda. Kanbon berriz, euskal gatazkaren konponbide osorantz pausoak emateko deia egin dute nazioarteko eragileek. Aro bat bukatu da behin betiko eta beste bat hasiko da orain, aurrekoak utzitako problemetako batzuk herentzian jasota.

KRONIKAK

ETA lekuko gutxiren aurrean desegin zen Henri Dunant zentroan




TESTUA ETA ARGAZKIA:
Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Apirilaren 27an filtratu zuen albistea *El Mundok*: maiatzaren 3an, Genevako Henri Dunant Zentroan, 14:00etan, ETAko hiru kidek bideoa grabatuko omen zuten amaiera iragartzeko. Suitzako beste hiri batean, Zurichen, harrapatu gintuen ARGIAko bi kazetari iragarpen honek, maiatzaren 1eko kronika egitera joanak (Panorama atalean dago ikusgai). Apirilaren 30ean *La Razoni* irakurriko genion bideoa dagoeneko grabatua zutela Henri Dunant Fundazioan eta Espainiako diplomaziak “oraingoan bai” esku-hartu zuela, eragozteko Suitza eta Norvegiako gobernuek beren bermea adieraztea ekitaldi horretan. Maiatzaren 2ko eguerdian *Eldiario.es*-ek filtratu zuen ETAk apirilaren 16an sinaturiko gutuna, bertan iragarritz bere egitura guztiak desegin dituela; eta biharamonean nazioarteko telebistaren batek, ziur aski BBCK, bideoa emango zuela ere esaten zuen.

Badaezpada Suitzako egonaldia luzatuz joan ginen, baina irakurritakoak irakurrita, maiatzaren 3an Genevako Henri Dunant Zentroan albisterik eskuratzeko gero eta esperantza ximelduagoarekin. Hala ere, alferrik joan izanaren pena, joan ez izanaren damua baino samurragoa izango zitzaigun.

ARGIAko kolaboratzaile batek eginitako diplomazia lanari esker, maiatzaren 2an Henri Dunant Zentroari galdetu genion, telefonoz zein idatziz, ea prentsak ateratako informazioak egiaztatu edo gezurtatu zitzairenen, eta ea biharamonean Euskal Herriko gatazkarekin loturiko ekitaldirik egingo zen –eta hala balitz, ARGIAk akreditazio eskaera luzatzen zuela–. “Hedabideetako albisteez



Henri Dunant Zentroko zuzendari David Harland-ek ETArekin agiria erakutsi eta desegitea frogatutzat ematen zutela bermatu zuen. Argazkian, hitz egin ostean aulkian eserita, ETArekin agiria eskuan. Egun hartako argazki eta bideo guztiak argia.eus-eko Gaitzerdi blogean daude ikusgai.

ez dugu adierazpenik egiten. Ulertuko duzuelakoan...” erantzuna.

6:30ean autoa hartu Zurichen eta 11:00 aldera Genevako egoitza fama-tuan ginen. Zer poza gurea telebista kamerak atarian ikusita! Euskal telebista-irradi publikoko eta nazioarteko hainbat medioetako kazetariekin berriketan, denek galdera berak: euren nagusiek zitatu zituztela 14:00etan “zerbait” gertatuko zelakoan, baina inork “zer” izango zen arrastorik ez. Gainerakoek izena emana omen zuten sarreran, eta 13:30ean esango omen zieten medioei “zerbait”.

Sarrerara jo dugu gure “gosez ez hiltzeko adinako” ingelesarekin. Kazetari txartela erakutsi, eta gu ez omen gaude zerrendan. Ea zerrendan egoteko zer egin behar den. Aurrez egon behar zela zerrendan. Ados, baina nora deitu edo idatzita (emailean begiratzeko, gure mezua han dutela). Erantzunik gabeko esaldi kateatua bueltan.

12:30 aldera beste taldetxo bat iritsi zen: *Berriako* bi kazetari, *Garako* beste bi, eta Argazki Presseko argazkilaria. Haiek adierazi ziguten bi aste lehen-

gotik zeudela gonbidatuak, eta ekitaldi horrek pribatua behar zuela izan, medio espainiarrek filtratu ez balute. *Berriak* maiatzaren 4an argitaratuko zuenez, bi medio hauek eta BBC omen ziren deitutako bakarrak.

Euskal eta Suitzako telebistei 13:30ean zabaldu zieten atea, sartzeko. 13:45ean *Berria-Gara-Argazki* Pressi. Eta 13:55ean sartu ziren, Espainia eta Europako hainbat telebista eta prentsari irudiak zabalduko zizkieten EFEko kamerak eta ARGIAko bi kazetariak.

Kataluniako independentzia aldarrikapenaren berri emateko erraztasun guztiak jarri zitzaizkien kazetari eta medio guztiei. Zenbatek eta gehiagok bere berri eman, oihartzun zabalagoa nazioartean. Zein aldagaik lehenetsi dezake ekitaldi pribatu bat, nazioartean ahalik oihartzun zabalena ematearen aurrean? Frantziako Justizia ministro ohi Christiane Taubira ezagutu genuen bertaratutako “diplomatiko”en artean. Zergatik ez zuten nazioarteko ordezkariak elkarrekin argazkirik atera, zergatik ez zuten hauen izen-zerrenda zabaldu? Denborarekin jakingo dugu zerbait, aigan.

Dena bukatu omen denean, bukatu gabe geratzen dena



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Aietetik Arnagara zazpi urteko amaiera amaiezinenaren basamortu bat dago eta hura zeharkatu nahian erre dira Euskal Herrian bake prozesu bat abian jartzeko egon zitezkeen esperantzetatik asko. Horregatik, sentsazioa arraroa da Kanboko ekitaldira iristean: zenbaiten us-tez, esan beharreko guztia esana dago maiatzaren 4ko "Gatazkaren konponbi-dea aitzinatzeke Nazioarteko Topaketa" hau iritsi denerako, ostegunean konfirmatu baita Genevako Henri Dunant zentroan ETak existitzeari utzi diola. Aurretik irakurri dugu ETaren beste dokumentu bat ere, eragile eta erakunde ugariri bidalitako gutuna, epika handirik gabe idatzia eta, tartean, konstatazio hau daukana: "Tamalez, Aieteko Adierazpenak ez zuen bidea egiterik izan. Euskal herritarren gehiengoaren nahia-rekin bat egin arren, Espainia eta Frantziako estatuek ezinezko bilakatu zuten hasiera-hasieratik". Orain berriz, leiho bat ireki nahi da –irudi hori dauka logotipoan Kanboko ekitaldiak–, ETaren amaieraren ondoren jitoan gera daitezkeen auziak berriz agendan sartzeko: presoak, iheslariak, biktima guztien aitor-tza edo gatazkaren memoria inklu-siboa, besteak beste. Dena esana omen dagoenean, esan gabe geratzen dena.

Jauregia, prentsa asko, ezkontza ba-terako jantzita datozen ordezkari poli-tikoak eta gizarte-alorrekoak: eszenak Aieteko argazki beneragarriak dakartza gogora eta protagonistekin osatu da is-pilua, hemen daudelako Bertie Ahern Irlandako gobernuburu ohia, Jonathan Powell Erresuma Batuko lehen minis-troaren kabinete buru izandakoa eta Gerry Adams, duela gutxi arte Sinn Fein



Brian Currin nazioarteko bitartekaria Arnagako ekitaldian. 2011tik hona bake prozesua abian jartzeko lanetan aritu da, baina saiakera horiek ez dute emaitzarik eman.

alderdi irlandarreko buruzagia. Denak izan ziren parte aktibo Ipar Irlandako gatazkaren amaieran; eta Cuauhtémoc Cárdenasekin –Internazional Sozialis-tako ohorezko presidentea– eta Michel Camdessusekin batera –Nazioarteko Diru Funtseko zuzendari kudeatzai-le ohia– aurpegia jarri diote Arnagako adierazpenari, zeinak ETaren amaiera ospatzearekin batera, konpondu gabeko gai garrantzitsuak aipatzen dituen eta mezu argi samarra bidaltzen Espainiako Gobernuari: "Segurtasun zein kartzela neurriekin soilik erantzutea oso gutxi-tan da arrakastatsua".

Oraindik egiteko dagoen lana azpi-marratu dute Arnagan, baina ez dago argi Kanbon bildutako guztiek mezua berdin ulertu nahi izan duten. Andoni Ortuzar EAJko presidenteak, adibidez, ekitaldiaren osteko adierazpenetan ez ditu aipatu ere egin gatazkaren beste ondorioak eta ETaren amaierarenga-tik poza agertzeraz mugatu da. Ez dago

argi jeltzaleek nazioarteko topaketako mezua lehenesten dutenik eta haien ba-besik gabe, nekez behartuko du inork Moncloa presoan dispertsioa buka de-zan; gauzak horrela segitzekotan, gataz-ka honen amaiera pertsona batzuentzat asko luza daiteke: Espainiako Gobernuaren bozeramaile Iñigo Méndez de Vigok esan du ez dutela espetxe politika aldatuko, "emaitza positiboak" ikusita; eta Mariano Rajoyk Itun Antiterrorista-ren bilera deituko duela iragarri du. Ba-kea ala garaipena: badakigu batzuek zer aukeratu duten. Arnagatik ateratzean, sentsazio arraroa gainetik kendu ezin-da, hainbat lagun aurkitu ditugu euskal presoak etxera ekartzeko eskatzen du-ten banderolekin.

ANALISIA

Adio ETArri, stop sufrimenduari

Katarsia 2011ko urriaren 20an bizi izan genuen, baina orain ere ez da makala idaztea gaur ETA desagertu dela. Ohartzean horrek esan nahi duen guztiarekin, goitik behera sumatzen da zirrara bizkar-hezurrean. Gertaera, sentipen eta sufrimendu gehiegi bildu da 60 urtean zehar bestela izan dadin.



Xabier Letona
@xletona

ETAk amaiera 1979ko maiatzaren 3an iragarri izan balu, Gernikako Estatutua erreferendumez onartzeko bezperan, bere amaiera oso bestelakoa litzatekeen, bestelako errelatoarekin sartuko zatekeen historian: erakunde gerrilari historiko gisa, 36ko Gerraren ostean frankismoari aurre egin eta Euskal Herriaren nazio eskubidea berpiztu zuen erakunde gisa, heroi izatetik gertu leudeke etakideak... Tira, batek daki, baina oso posible litzateke antzeko zerbait izatea. Plazetan herriak bolo-bolo abesten zuen “*Voló, voló, Carrero voló*” hura ez zen txantxetakoa.

1989an desagertu izan balitz, Aljereko negoziazioaren bueltan, oraindik izango zuen halako kutsuren bat, eta bere preso eta iheslariak kalean leudeke aspaldi, negoziazio politiko haren magalean lortutako akordioei esker. 1999an Lizarra-Garaziko akordioaren ardaztean itxi izan balu atea, nazio akordio-rako gaitasuna nabarmenduko litzaiotke agian, eskuzabaltasuna; eta 2006ko Loiolako bileren kariatara gelditu izan balitz, azken trena hartzeko ETAk egingako jokaldi egokiaz arituko ginatekeen asperen eginez. Baina herritik sortutako hura, abangoardismoaren bidezidorrretan galdu zen eta herriarekin erabat deskonektatu zuen.

Gatazka politikoa

Saio hauetan eta beste askotan, inoiz hitz egingo ez zuen terroristekin jardun zuen Espainiako Estatuak, garaian garaiko alderdiaren bidez, izan UCD, PSOE edo PP, beti arazo politikoak mahaia- ren gainean. José María Aznarren “*Movimiento Vasco de Liberación*” hark bere leku propioa irabazi du historian. Baina ez, alde biko bide horiek guztiak galdu zituen erakunde armatuak eta orain alde bakoitzeko heldu behar izan dio, bere helburu historiko guztiak gauzatu barik. Eta sikiera, aitortu beharko zaio horretarako gaitasuna izan duela, beti izan baitaiteke okerrago, horren adibide ugari dago munduan.

Orain ordea, kontakizunaren borroka areagotu egingo da: terrorista hutsak? Terrorista onak? Borrokalarri erratuak? Heroiak? Irabazleak idazten ei du historia eta Espainiako Estatuak asko irabazi du, baina ez PPK nahiko lukeen adina, besteak beste, Euskal Herrian bere kontakizuna hutsaren hurrengoa delako. Bere errepresioa ez, ordea, eta horrek asko baldintzatzen du, batez ere EAJ moduko aliatuak baditu, politikaren etika txanpon truke bihurtzen inoiz baino trebeago agertzen dena, izan 155. artikuluekin edo intentsitate apaleko bake prozesu honekin.

Nazio eskubideak

ETA nazio eskubideen zapalkuntzari erantzuteko sortu zen 1959an eta eskubide horiei irtenbidea eman nahi izan die borroka armatuaren bidez. Ez du lortu, baina horrek ez du esan nahi horretan eraginik izan ez duenik; gaur egunetik begiratuta oraindik goiz da esateko zein eragin izan duen egungo egoera politikoan. Denbora gehiago beharko da hori zehazteko, eta seguruenik, historia nork idatzi, erantzuna ere halakoa izango da.

ETAk ez ditu bere helburu historikoak lortu, baina arazo politiko baten ondorioz jaio zen, eta euskal gizarteak Estatu espainiar eta frantziarrarekin dituen arazo politikoak hor jarraitzen du. Euskal Herrian bizi izan dugun gatazka armatuaren azken kapitulu honetan argi agertu izan da nazio arazoa, eta bestelako intentsitatez lehenago 1936an edo karlistadetan. Etorkizun- nean, halakorik berriz gerta ez dadin baldintzak sortzean datza aurrera begi- rako erronka garrantzitsua, eta hori, ezinbestean, euskal herritarren akordio politikoan oinarritu behar da. Ondoren etorriko da Espainiako eta Frantziako estatuekiko akordioa, beti ere euskal herritarren borondade demokratikoa oinarri.



Biolentziak

Jakina, hobeto halakorik inoiz gertatu ez balitz, eta frankismorik ere ez eta... baina gertatu egin dira, eta 60 urteko ETaren urrats bakoitza bere testuinguru historikoan kokatu eta aztertu beharko da. Biolentzia eta bortxa ez dira hobeak hauek praktikatzeko dituztenak jende gehiagok edo gutxiagok sostengatzen badituzte; legezkoak diren edo legez kanpokoak –gerra eta terrorismoaren definizioa hor nonbait da–; hobe pertsona biolentziara inoiz helduko ez balitz, izan biolentzia demokratikoki legitimoa edo ez.

Baina, airea nola, biolentzia ere gure artean da. Oraindik izango da biolentziaz hitz egiteko aukera gehiago, batez ere horretarako baldintza egokiagoak direnean, baina pertsona eta herrien emantzipazioaren bidean biolentzia zapaltzaile eta biolentzia askatzailearen existentzia haizea eta urarena bezalakoak dira. Bestelakoa da hor non kokatzen duen bakoitzak ETaren jardura, baina mundua gaur egun dagoen bezala ikusita, estatuek erabiltzen dituzten era guztietako indarkeriak ikusita, aldebakarreko biolentziaren gaineko ikasgai moralak lekuz kanpo daude. Kasu honek, are lekuz kanpokoagoa da biolentziarekiko autokritikak ezker abertzaleari bakarrik eskatzen bazaizkio.

» Aldebiko bide horiek guztiak galdu zituen erakunde armatuak eta orain aldebakarrekoari heldu behar izan dio, bere helburu historiko guztiak gauzatu barik

» Jakina, hobeto halakorik inoiz gertatu ez balitz, eta frankismorik ere ez eta... baina gertatu egin dira, eta 60 urteko ETaren urrats bakoitza bere testuinguru historikoan kokatu eta aztertu beharko da

Zaragozako Guardia Zibilaren kuartelaren aurkako atentatua egin zuen ETAk 1987an: 11 pertsona hil zituen, horietatik 5 umeak, eta 88 zauritu zituen.

Analisi, autokritika eta hausnarketarako bestelako garaia irekitzen da orain, eta hiruetatik ugari egin beharko da, baina bada bestelako lehentasunik, eta horien artean garrantzitsuen oraindik sufritzen duen jendeaz arduratzea da: preso eta iheslariak, haien senideak, eta kolore guztietako biktimek. Izan dezagun mesfidantzarik handiena pertsonak oinarrian jartzen ez dituzten prozesu politikoez; orain oinarri-oinarrizkoa beharko luke politikaren lehen planora ekartzea kolektibo horiekiko ardura, izan Estatuarekiko negoziazioan, izan mobilizazioetan, izan era guztietako akordio politikoetan.

Horrez gain, amaitu da Arazoa, beraz betoz arazoak, neoliberalismoaren bultzada gupidagabearen ondorioz, Europako gainerako herriei homologatzen gaituzten herrien eta herritarren arazoak.

“ETAk zutik eman dio amaiera 60 urteko ibilbideari”

Arkaitz Rodriguez Sortuko idazkari nagusia da (Donostia, 1979). Kanboko ekitaldiaren biharamunean elkarrizketatu dugu, Donostiako Haizearen Orrazian Ezker Abertzaleko zuzendaritzako dozenaka kide ohik ETArekin amaierari sostengua agertu ondoren. Sortuk du orain Ezker Abertzalearen gidaritzaren ardura nagusia.



Xabier Letona

@xleona

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Zer irudikatu nahi izan da Kanboko ekitaldiarekin?

ETArekin azken erabakiari nazioarteko babesa ematea. Han izandako nazioarteko eragile guztiek txalotu zuten ETArekin ausardia eta eskerrak eman zizkionten Aieten hartutako konpromisoak bete dituelako, Espainiako Gobernuak ez bezala. Halaber, Kanboko ekitaldiak mahaigaineratu du ETA desagertuta ere izan badela gatazka politiko bat zeinari aterabide justu, demokratiko eta oso bat eman behar zaion.

Eta egun bat lehenago Genevan egindako ekitaldiarekin zer lortu nahi zen?

Henri Dunant fundazioak antolatu zuen, eta bertan nazioarteko hainbat begiralek egiaztatu zuten ETArekin azken agiria egiazkoa zela.

Dena ez omen zen atera pentsatu bezala.

Aurreko egunetan ETAk hainbat eragile eta norbanakori gutuna helarazi zien azken erabakiaren berri emanaz, eta bakarren batek filtratu egin zuen. Hori publikoa da.

Horrez gain, Genevan beste ekitaldi mota bat egin nahi omen zen, baina Espainiaren presioen ondorioz ezin izan zen egin.

Ez. Espainia saiatu zen ekitaldi hori egin ez zedin, baina Suitzak ez zuen onartu halakorik.

Nazioarteko komunitatearen aurrean agiria egiaztatzea bazen kontua, ez ote zen komeni Genevan ahalik eta hedabide gehien izatea, European eta ahal den leku guztietan albistea ahalik eta gehien zabaltzeko?

Espainiaren presioa saihestea zen asmoa. Zenbat eta jende gehiago egon ekitaldi horren jakinaren gainean, orduan eta aukera gehiago Espainiak ekitaldi horren berri izan eta egin ez zedin presio egiteko.

Negoiazioz lortu beharreko helburu bakarra eskuratu gabe desagertu da ETA. Amaiera latza edo duina da?

Duina da. ETAk bere borondatez eta zutik eman dio amaiera 60 urteko ibilbideari. ETAk berak onartu du helburu horiek ez dituela lortu, baina balantza horretan beste osagai positibo asko ere jartzen ditu eta horiek ere kontuan hartu behar dira.

Aljer, Lizarra-Garazi, Loiola... ez al da oso berandu etorri amaiera?

ETAk esaten du berak ere nahiago zukeela hau lehenago amaitzea. Esaten du historian zehar sarri luzatu izan dio la eskua Espainiako Estatuari irtenbidea elkarrizketatua eta negoziatua izan zedin. Estatuak, aldiz, ez dio halakorik onartu nahi izan, eta orain ere ez. Horrek luzatu du behar baino gehiago kon-

frontazio armatuaren zikloa. ETAk eta Ezker Abertzaleak bide baketsuen aldeko apustua egin dute, Estatuak gaur gaurkoz biolentzia politikoa erabiltzen jarraitzen du.

Presoen arazoa hain garrantzitsua izanik, nola ulertu liteke 2011tik gaurdaino behar izatea ETA desagertzeko? Ez al zen logikoagoa askoz lehenago izatea?

Bai, baina estatu bien jarrera saboteatzailearen ondorioz luzatu da hainbeste. Zorionez, Frantziako Estatuak hasi da urrats batzuk ematen, baina Espainiakoak jarrera itxian jarraitzen du.

Ezker Abertzaleari zera esatea eskatzen zaio orain: “ETAk egindako guztia injustua izan zen eta gaizki egin egon zen, ez zen inoiz gertatu behar”. Zer diozu?

Eskaera hori ez dela inolaz ere justua, bidezkoa eta arrazoizkoa. Halako exigentziek konponbidea oztopatzen dute eta errelato jakin bat inposatu nahi dute: onen eta gaiztoen errelatoa, justuena eta injustuena. Egiari zor diogun begirunetik, ezin dugu halakorik onartu, baina gainera, ezin da elkarbizitzarik eraiki kontaera horren gainean.

Eta eskatzen zaion autokritika horretan noraino iristeko prest dago Ezker Abertzalea?

Orain arte Ezker Abertzalea izan da au-



tokritika egin duen bakarra. Espainiako Gobernuak eta EAeko gobernu autonomikoak ez dute inongo autokritikarik egin. Ez dugu entzun PP torturarekiko duen erantzukizuna onartzen; ezta PSOE GAlen sorreran duena onartzen ere; eta Ertzaintzari egozten zaizkion 300dik gora torturatuengatik berea onartzen ere ez EAJ. Edo dispersioan duten ardura... Bada ordua beren erantzukizuna ere onar dezaten.

Amaierara berandu iritsi izanaren errua bakarrik Estatuaren aldean jarri duzu. Ezker Abertzaleak ez du erantzukizunik horretan?

Badu bai eta aipatu izan dugu. Ezker Abertzaleak lehenago ohartu behar zuen Estatuak ez zuela gatazka honi irtenbide politiko eta demokratikoa emateko inolako borondaterik. Lehenago ohartu behar genuen halako estrategia batekin ez genuela Estatu konponbidera eramango eta bestelako estrategia bat bilatu behar genuela, gero egin dugun bezala.

Eta berandu iritsi izanaren ondorioz, Ezker Abertzalea ahul iritsi zen bake prozesura. Edo ez?

Nik uste dut indarrez iritsi zela, eta horren erakusgarri izan zen 2011n ezkerreko soberanismoak erdietsi zuen indarra. Orduan independentismoak

» “Ezker Abertzaleak lehenago ohartu behar zuen Estatuak ez zuela gatazka honi irtenbide politiko eta demokratikoa emateko inolako borondaterik”

lortu zuen herri honetan inoiz izandako ordezkari itzina instituzionalik handiena. Bestalde, Ezker Abertzalearen estrategia aldaketaz geroztik azken hamarkadako mobilizaziorik handienak egin dira.

Ni ari naiz batez ere bake prozesu batean lortu beharreko helburuei begira.

Bai, baina hau dagoeneko ez da bake prozesu klasiko bat, mahaiaren beste aldean ez dagoelako mintzakiderik. Aldebakarreko logikan gaude eta gure indarra dagoeneko ez da neurtuko ETak edota Ezker Abertzaleak izan zezakeen indarrean; neurtuko da aliantzak eta gehiengoak artikulatzeko dagoen indarraren arabera. Ipar Euskal Herrian

gertatu dena oso erakusgarria da alde horretatik.

Bai, baina Ipar Euskal Herrikoek lortzen dute Kanbon beren ordezkari itzina instituzional ia osoa bertan egotea eta Hegoaldek ez da ez gobernurik, ez diputaziorik ez udal ordezkari itzinarik.

Egia da, baina Hegoaldeko gehiengo politiko eta sindikala han zegoen. Urkullu ez zen egon, eta Barkos ere ez, baina EAJ bai.

Eta nola interpretatzen duzu arratsaldean bi lehendakari egin dako agerraldia?

Kontraprogramazioa egin zuten eta hori tamalgarria iruditzen zaigu. Ez ziren egon une historiko honek eskatzen zuen mailan. Hala ere, guk nahiago dugu egin zuten adierazpenaren alde positiboarekin geratu, eta alde horretatik onartu egin zuten ETak emandako urratsaren garrantzia.

ETAren bukaera honek zer zapora utzi dizu: gozoa, gazi-gozoa edo mikatza?

[Asko pentsatu du erantzuna] Gozoa. Ezker Abertzaleak ez du lortu Estatu behartzea gatazka politikoari aterabide demokratiko bat ematera. Baina bai burujabetza jomuga izango duen herri prozesu baterako nahiko baldintza ereitea. ETak oinatz sakona utzi du herri honen historian.

“ETA eredu negatibo bat izan da euskal herritarrentzat”

Txema Montero (Bilbo, 1954).

HBko europarlamentari ohia, ETAko presoen abokatu lanetan aritutakoa, HBtik kanporatua, Sabino Arana Fundazioko kide urte luzez eta analista zorrotza, besteak beste. ARGIAk bidalitako bost galdera hauei erantzun die idatziz.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: JUDIT FERNÁNDEZ



ETA desagertu da jada. Zer izan da ETA?

Eredu negatibo bat euskal herritarrentzat. Bortxaren erabilerak, hasieran selektiboa eta estentsiboa ondoren, akats ikaragarri batera eraman zituen etakideak: helburu politikoak eta bitarteko militarrek parekatzea, independentzia eta borroka armatua bereizi ezin bihurtu zituen ETAK. Tamainako itsuskeria hori haren harrokeria armatuaren ondorioa izan da. Haren nagusitasun taxu horrek mespretxuzko aire bat azaldu du: eurak bakarrik, denetarako prest, patuak ukituta, goi-lekune batean paratuta, harmailaren goialdeak ematen duen ikuspegiaren jabe eginak. Haatik, euskaldunek euren proiektu eta metodo bortitzarekin bat egin zezaten zuen gaitasun ezak –biak batera onartezinak gure gizartearen gehiengoarentzat– ETA bere lekuan jarri zuen: behetik gora begira, ezin izan zuten gorago igo harmailan, bidea tiroka irekitzen saiatu arren.

Ezker abertzaleak autokritika egin beharra areago aipatuko da hemendik aurrera. Zer esan beharko luke?

ETAren amaierara arte ez dira gauza izan ohartzeko euskal gizarteak –gerraz nekatuta– erabakia zuela –modu bar-kaberaz– bide politikoaren alde egitea,

ez zuela hiltzearekin bat gehiago egin nahi. Hauxe onartu beharko dute: giza-kin ezin dela behartu ideologia batekin bat egitera, ezin gauzatuko profezieta-rik eta bidezidor antidemokratikoetatik aldendu behar dela, dena esplikatzen duten teoriagileez mesfidatzea komeni dela. Aldiz, munduari begirada umila eta zuhurraz begiratzen diotenak aintzat hartu behar direla.

Zer behar da orain, euskal presoek eskubideak errespetatuak izan daitezen?

Auzitegiatar jo behar da euren eskubideen arau-hausteak erreklamatzeko. Espetxetako eskumenen transferentzia lortu behar da, EAEko eta Nafarroako Justizia Auzitegiatarako espetxe zaintzako juzkatuak eskumenekoak izan daitezen, eta terrorismo zigortutako presoek epai betearazleak bermatzeko, iraganean izan zuten bezala. Instituzioen, alderdien eta iritziz publikoaren aurrean ekin behar da, presoak euren familien etxetatik hurbilen dauden espetxetara ekartzeko. Presoei ezarritako zigorraren desberdintasuna behin eta berriz gogoratu behar dugu.

Nola ikusi duzu bake prozesua 2011tik gaur arte?

Abiapuntura eraman gaituen bide luze

eta bihurria: ETAren alde bakarreko erabakia berez, beretzat eta beren-be-regi egin zen. Pentsatu nuen, ETAK aitor-tutako borroka armatuaren amaiera erakundearen beraren amaiera zela, kito. Bakea ETAren absentsia zela, ETA ez egotea, adjektibo gehiagorik gabe, hau da, bukaerako azken eszenifikazioa ez zela intereseko kontua.

Zure iritziz, zein dira prozesuan aurreratzeko eta berau amaitzeko eman beharreko hurrengo urratsak? Nola jokatu beharko lukete prozesuko eragile nagusiek, hau da, Ezker abertzaleak, Estatuak eta EAJk?

ETAri egozten zaizkion hainbat hilketa eta desagertu erakundeak berak argitzen ez dituen bitartean, nik ez dut prozesua amaitutzat jotzen. Izan ere, horiek argitu ezean biktimen senideek ez dute beren dolua bukatuko sekula. Gauza bera Estatuari dagokionez: ez du GAL aitortu, haren ardura eta zeregina berea delarik, hainbat pertsona desagertu arduraren berea izanda. Gainerakoan, zuk deitzen dituzun eragile nagusiei politika egin dezaten eskatzen diet begi-bistako egia bat kontuan hartzeko: etorkizuneko irizpideek gure belaunaldia ere epaituko dute egunen batean. ■

MAIATZAK

19

22:30

PAGOA

kafe antzokia

OIARTZUN

SARRERAK

A: 5€

T: 8€

OIARTZUN

ELORSORO

PAGOA

DONOSTIA

DONOSTI ROCK

ERRETERIA

ARKAITZA TABERNA

ONLINE

TICKETEA

COLECTIVA

MAUKA

KUTXABANK



DEKOT COSMÉTICOS NAU

berria

ARGIA

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



PAGOA®

EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

WWW.PAGOA.EUS • PAGOALDEA 7, 20180 OIARTZUN • TEL. 619 421 153



Putzuak ikastetxe barruan

Laborategi naturala ikasleentzat, premiazko bizigunea apoarentzat

“Euskal Herrian oso gutxi izango dira ikastetxe barruan hezegunea egitea erabaki dutenak”, diote Irungo Plaiaundi Institutuko irakasleek. Hezegune bat ez, hiru egin dituzte bertan, ikasleek eurek: hiru putzu, hiru habitat; ikasgelako teoretik praktikara salto egiteko laborategi naturala lortu dute batetik, eta inguru horretan bizi den eta mehatxupean dagoen apo lasterkariarentzako erreserba ezin hobea sortu dute bestetik.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO



Urtarrilaren 24a da, eguraldi ona dugu eta putzuak egiteari ekingo diote institutuko ikasleek. Aurretik, Gabonetako oporretan, makina hondeatzaile txiki batek hiru zulo utzi ditu eginak ikasleentzeko zelai-guneko hiru lekutan. Putzuen sakonera, neurria, toki zehatza (itzaletan edo eguzkitan)... ez da ausazkoa, bertako espezieengandik pentsatuta diseinaturiko hezeguneak dira. Palak eta aitzurrak prest dituzte, eta segituan jabetuko dira ikasleak: putzua sortzea ez da zulo bat egitea eta kito, ez horixe. Batxilergoa egiten ari diren 16-18 urteko hiru ikasgela –eta hiru irakasle– dira, 50 ikasletik gora: ikasgela bakoitzak putzu banaren ardura izango du, orientazioaren arabera izendatu dituztenak: Larrun putzua, Jaizkibel putzua eta Aiako Harriak. Aranzadi Elkarteak Jon Garin ere bertan da, azalpenak ematen, Aranzadi bidelagun izango baitute proiektu honetan.

Eta hasi dira ikasleak, palekin zulora lurra botatzen, aitzurrekin garbitzen, putzutik ura ateratzen... Gero, geotextil geruza jarri dute denek artean (oinarrizko geruza da, euri-ura ez dadin etorkizunean iragazi eta lurra ez dezan dena xurgatu); eta oraindik beste bi ge-

ruza ere jarri beharko dituzte (butilo geruza eta geotextila berriz ere). Lurra bota, inguruan hesia egin... Lau bat egunetan jaitsi behar izan dute patiora, prozesua behar bezala amaitzeko, eta lortu dute azkenean, hiru hezegune diseinatu dituzte, euriak modu naturalean beteko dituen hiru putzu. Ikasleek euren egitea ideia ona izan da, proiektuan gehiago inplikaturiko direlako: propio sentitzen duten putzuaren jarraipena egingo dute, aldaketak ikustera gerturatuko dira, jakin-mina dute... eta aldi berean, gizakiak onerako eta txarrerako naturan eragin dezakeela konturatu daitezela nahi dute irakasleek.

Karlos Cruz, Ana Uriz eta Iñaki Sanz-Azkue dira Lur eta Ingurumen Zientziak ikasgaiako irakasleak Plaiaundi Institutuan. Bakoitzak talde bana du eta hiru taldeek asteazkenetan, azken bi orduetan ematen dute ikasgaia. “Hasieratik garbi ikusi genuen ez ikasleak ez gu ez ginela prest gela barruan bi ordu segidan eduki teorikoak ematen aritzeko astero-astero”. Horrela jaio zen ekimena.

“Zergatik ez da hazi belarra?”

Hasieran ikasgelatik ateratzeko aitzakia eta kasik jolasa zena, beste dimentsio

bat hartzen joan da, pixkanaka zentzua ere ikusi diote ikasleek egin dutenari, eta hezegunea ur-putzu bat baino askoz gehiago dela ohartu dira: mikrohabitata eta txokoak daudela hezegune barruan, maila teorikoan lantzen dituzten gaiak (ekosistemak, biodibertsitatea, landareak, espezie ezberdinen bizi-zikloak...) lotura dutela bizitzarekin, “batzuetan badirudielako liburuan ematen duguna zerbait abstraktua dela –diote irakasleek–, baina ez, hor dago, naturan, putzuan bertan”. Aurten sorturiko hezeguneak, gainera, baliagarri izango zaizkie datozen ikasturteetan ere, eboluzionatzen jarraituko dutelako eta hurrengo ikasle belaunaldientzako laborategi natural bikainak izaten jarraituko dutelako.

Errealitatea ez baita teoria, aurreikuspenak beti ez dira betetzen, eta hori ere bada aberasgarri. Hasiera batean berdinak ziruditen putzuek ezberdintasunak dituztela agerian geratu da denborarekin eta putzuetako bat, adibidez, ez da apenas aldatu, oso hezea delako eta ingurua putzutzen delako. Gogoetarako baliatu dute irakasleek: zergatik ez da aldatu? Zergatik ez da belarra hazi? Zertan da beste hezegunekiko ezberdina?...

Ariketetako bat izan da putzu banaren inguruan metro koadro bat aztertzea: belarra nola hazi den, zein portzenta-jetan, zein landare agertu diren... Hala, eboluzioa eta segida ekologikoa landu dituzte. “Zenbat landare ezberdin zeuden begiratzeko esan genien. ‘Zenbat landare? Dena belarra da-eta!’ erantzun ziguten. Bada, begiratu eta sei espezie ezberdin aurkitu zituzten, hain eremu txikian. Nik ez nien esan hori biodibertsitatea dela, baina izena jarri edo ez, kontzeptua ulertu dute, barneratu dute”, dio Sanz-Azkuek.

Galderaz, ariketez eta hausnarketa-rako aukerez betetako txosten osatua ere prestatu zuten hiru irakasleek. Zure hezeguneak zein orientazio du eta noiz joko dio eguzkiak? Zertan dira ezberdinak hiru putzuak? Zein da putzuko ekosistema, biotopoa, populazioa, habitata...? Ze fauna mota gerturatuko da putzuetara? Garrantzitsua al da putzua noiz egin jakitea? Osatu kate trofiko bat putzu bakoitzarentzat; eta abar luzea. Txostena betetzeko garaian, ikasleen artean iritzi-truke eta eztabaida interesgarriak sortu ziren; “gaiak jakin-mina eta interesa piztu duen seinale”.

Lur eta Ingurumen Zientzietan bakkari ez, beste ikasgai batzuetan ere baliatu dituzte patioko habitat berriak: Kultura Zientifikoa, Biologian eta Geologian, esaterako, uraren azterketa egiteko, protozoak eta mikroorganismoak bilatzeko edota laborategiko praktiketarako oso ongi etorri zaizkie. Eta hurrengo ikasturteetarako, zientzia arloetatik harago gainerako ikasgaie-tan ere putzuak integratzeko egitasmoa planteatu dute.

Apo lasterkariak badu non ugald

Balio hezitzaileaz gain, biodibertsitatearen ikuspegitik ekarpen handia dira hezeguneok. Helburua izan da hiru habitat berri sortzea, anfibioak, intsektuak, txoriak, narrastiak... erakarko dituen; ez da ahaztu behar anfibioen populazioa gainbehera dagoela eta %40ak desagertzeko arriskua duela. Baina beste asmo bat ere badute putzuek: apo lasterkaria espezie mehatxatuari bizileku aproposa eskaintzea (ez alferrik, hari egokitutako sakonera, tamaina eta ezaugarriekin diseinatu dituzte putzuak, moztutako belarraz inguratuak, eremu irekiak behar baititu apo lasterkariak). Hain juxtu, apo lasterkaria oso leku gutxitan aurkitu ba-

» Hasieran ikasgelatik ateratzeko aitzakia zena, beste dimentsio bat hartzen joan da, pixkanaka zentzua ere ikusi diote ikasleek egin dutenari, eta hezegunea ur-putzu bat baino askoz gehiago dela ohartu dira

» **IÑAKI SANZ-AZKUE, IRAKASLEA:**

“Zenbat landare ezberdin zeuden begiratzeko esan genien. ‘Dena belarra da-eta!’ erantzun ziguten. Bada, begiratu eta sei espezie aurkitu zituzten, hain eremu txikian”

» Beste ikasgai batzuetan ere baliatu dituzte: uraren azterketa egiteko, mikroorganismoak bilatzeko edota laborategiko praktiketarako

» Une onean datoz putzuak: atzealdeko baratzeak kenduko dituzte eta apoarentzat kaltegarria izan daiteke. “Gutxienez, hiru hezegune berri izango dituzte orain, erreserba moduko bat”

daiteke ere, ikastetxearen atzealdean dauden baratzeetan eta institutu alboan dagoen Plaiaundiko Parke Ekologikoa bizi da, eta hori aprobetxatu nahi izan dute irakasleek. Une onean datoz putzuak: atzealdeko baratzeak kenduko dituzte eta apoarentzat kaltegarria izan daitekeela aurreikusten dute, eremu murriztagoa izango dutelako ugaltzeko eta bizitzeko. “Gutxienez, hiru hezegune berri izango dituzte orain, erreserba moduko bat”.

Ikasturtea amaitzeaz dela, ez dago inor Plaiaundi Institutuan apo lasterkariaren berri ez duenik. Eta ez gara bakarrik ikasleek ari. Ikasgai ezberdinetako irakasleek, bedelak, kafetegiko langileek... galdetzen dute apo lasterkariak eta putzuen eboluzioaz. “Zerbait berezia izan da denontzat, harridura sortu zuen hasieran, jakin-mina ondoren, eta azkenerako elkargune indartsua izan da Plaiaundiko hezkuntza komunitatearentzat”. Horregatik, apirilean putzueta-ra eta ondoko parke ekologikora bisita antolatu zutenean arrats-gaua alderako (apo lasterkaria ikusteko ordu onenak horiek direlako), jende ugari animatu zen, haur, ikasle eta heldu, linternak eta frontalak hartuta abentura gogoz.

Maiatza da eta burrunziak, sugandilak, sugeak... hezeguneen parte dira dagoeneko. Bat-batean, ikasle talde bat sartu da gelara, oihuka: “Zapaburuak! Zapaburuak!”. Propio sentitzen duten putzura ohiko ikustalditxoak egitera joan, eta orduantxe izan dute ezustekoa, irrikaz esperotako albisteak: apo lasterkariaren zapaburuak agertu dira putzuan. Itxura oso ona du Plaiaundi Institutuko putzuen etorkizunak. ■





Putzua ikasleek eurek egitea ideia ona izan da, haiena egin baitute proiektua eta hezegunea. Eskuineko eta beheko irudietan, apirilean putzuetara eta ondoko parke ekologikora antolaturiko txangoa.



Sakanako batua ikasten

Herriko hizkeratik gertuen dagoen euskara batuaren bila

Aspaldidaniko eztabaida da euskara batuaren eta tokiko euskalkien erabilerarena: noiz eta nola erabili bata, noiz eta nola bestea. Galdera horiei erantzunak bilatzeko eta eskualdeko euskarari bultzada emateko asmoz *Sakanako Batua* jardunaldiak antolatu ditu Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Apirilean egin dituzte formakuntzako bi saioak Lakuntzan, Koldo Zuazo hizkuntzalariaren gidaritzapean.



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Irakaslea naiz Filologia fakultatean, eta harritzen nau ikusteak nola urtero-urtero ikasle gazteak etortzen diren esanez aurkezpenetan ez dutela euskara batua erabili nahi, artifizial sentitzen direla batua erabiltzean”. Euskara batuari egin izan zaion kritika nagusienetakoaren adibidetzat jarri zuen Koldo Zuazo hizkuntzalariak unibertsitatean sarritan entzuten duen esaldia. Euskara batua artifiziala, laborategiko hizkuntza dela, eta euskalkiak berriz naturalak eta benetakoak. Sakanako tokiko batuaren inguruko jardunaldien lehen saioa bere ustez okerrak eta arriskutsuak diren mitoak baztertzeko eta euskara batuaren garrantzia azpimarratzeko erabili zuen EHuko irakasleak.

Entzuleen artean, Sakanako hainbat herri eta esparrutako jendea zegoen: AEK-ko, ikastoletako eta eskoletako irakasleak, zenbait euskalkiren inguruan lanean diharduten pertsonak, sindikalgintzako jendea, udaletako eta mankomunitateko kideak, jubilatutako... Gaiarekiko interesa badagoela diote

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko langileek. “Ikastaroa jende guztiarentzako irekia izan da, baina zabalpen berezia egin dugu Sakanako ikastetxeetan, irakasleen bidez etorkizuneko belaunaldietara iritsi nahi dugulako”, azaldu dute.

Euskara batuaren alde, ez euskalkien kontra

Esan bezala, euskara batuaren aldeko jarrera argi utzi nahi izan zuen hizkuntzalariak jardunaldietako lehen saioan, eta euskara estandarren sorreran ikastolek izan zuten egitekoa azpimarratu zuen. “Ikastolak sortzea euskaldunok gure historian egin dugun gauzarik hoberenetakoak izan zela uste dut. Ikastolak sortzearekin batera hasi ginen gure historia, literatura, geografia eta hizkuntza ezagutzen eta aztertzen”, esan zuen.

Ikastolak euskaldunon sorkuntzarik handiena izan badira, euskara batua da bigarren asmakuntzarik inportanteena Zuazorentzat. Zergatik? Euskaldun guztiok elkarren artean ulertzea ekarri duelako, euskara ikasteko aukera ematen duelako, gure hizkuntza normalizazio bidean sartu duelako, Euskal Herriko

zazpi herrialdeak lotu eta batu dituelako, eta euskara gramatika eta hiztegi propiodun hizkuntza bihurtu duelako.

Ikerlariak ez du inongo momentutan zalantzan jartzen euskalkien aberastasuna, baina aldi berean, horiek mitifikatzea ere ez dela komenigarria pentsatzen du, euskalkiak elkarrengandik hain ezberdinak izatearen arrazoi nagusietakoak Euskal Herriak historian bizi izan duen zatiketa dela uste baitu. “Euskalkiak badira altxorak, baina argi izan behar dugu nondik datozen. Euskalkien jatorria ez da ona. Nik uste zazpi herrialdeak elkartuta egon izan balira, irakaskuntza eta administrazioa guk antolatu izan bagenu, ez liratekeela hainbeste euskalki egonen”, dio.

Tokiko batuak... zer arraio da hori?

Formakuntzako bigarren saioan heldu zion hizkuntzalariak tokiko batuen gaiari. Batua versus euskalkiak antagonismotik urruti, guztiak hizkuntzaren osagaiak direla uste du Zuazok, eta konbentzitura dago euskara indartsu egoteko osagai guztiak indartsu egotea komeni dela. Horregatik dabil tokiko batuen inguruan formakuntzak ematen gaur hemen, bihar han.





Euskara batua tresna egokia izanik ere, askotan ematen zaion erabile-
ra txarra dela uste du hizkuntzalariak.
Galdera hau egin zien jardunaldietako
parte-hartzaileei: “Zer iruditzen zaizue
Elgetan, Lapuebla de Labarcen eta Tu-
teran euskara berdin-berdin erakustea?
Edota Arbizun eta Ondarroan? Ez al li-
tzateke kontuan hartu behar toki bakoit-
zeko euskara, eta inguru euskalduna
den edo ez?”. Berak, erantzuna argi du:
bai. Eta adibidea jarri zuen erabilpen
oker hori azaltzeko: Mungiako 5 urteko
bilobari “zelan zauz?” galdetu eta hark
“ez da esaten *zelan zauz, nola zaude*
esan behar da” erantzun zionekoa, ira-
kasleak horrela erakutsita.

Herri eskandinabiarrak hizkuntza-
ren irakaste horretan eredutzat ditu
ikerlariak. Herrialde horietan, 4 urte

ingururekin bertako hizkuntzan egiten
dute haurrek eskolan, eta irakurtzen
eta idazten ikasten doazen heinean has-
ten dira hitzak osorik ikasten. “Umea
pixkanaka, urratsez urrats pasatzen da
ahozkotasunetik idatzizkora, etxeko
hizkeratik hizkuntza jasora, baina beti
herriko hizkeran oinarrituta”, azaldu
du. Euskaraz ere antzeko moduak bilatu
behar direla uste du.

Azken batean, proposamena ez da bi
batu ezberdin ikastea: ez dago batu es-
tandarra alde batetik eta tokiko batua
bestetik. Batu bakarra eduki behar dugu
bere ustez, eta batu horrek tokikoan
egon behar du oinarrituta. “Hori lortuko
bagenu jendeak errazago ikasi eta onar-
tuko luke batua. Artifiziala denaren ar-
gudio hori askotan oso urruneko batua
erabiltzen dugulako gertatzen da, batu

oso ‘arraro’ edo teknikoak gaitzespena
sortzen du askotan”, dio.

Sakanan, ‘bota naiz’ eta ‘fan’

Urdiainen hiru urtez bizi izan zen Zuazo
bertako euskara ikasten. Bazuen, beraz,
harreman nahiko estua Sakanako hizke-
rarekin lehenagotik. Bertan ‘bota naiz’
edota ‘fan’ hitzak erabiltzea, adibidez,
egoki deritzo. Arazoa, ordea, askotan
euskara batua zer den ere ez dakigula
da bere ustez, eta ongi dagoena txartzat
hartzeko joera daukagula. “Nork debe-
katzen du ‘bota naiz’ esatea? Ez duzue
topatuko Euskaltzaindiaren agiririk hitz
hau edo hori baztertu behar dela dioena.
Horrelako araurik ez da sekula eman”.

Tokiko administrazioan, udaletan, es-
koletan, herriko elkarte eta erakunde-
en oharretan... horietan guztietan tokiko
batua erabiltzearen aldekoa da Zuazo,
eta ez soilik ahozkotasunean, baita ida-
tzizkoan ere. “Ipar Euskal Herrian no-
nahi irakurtzen dugu ‘arno’ edo ‘gasna’.
Ea hemen, Urbanen edo Burundan, non
ikusten duzun ‘gaztaia’ hitza idatzita.
Inportantea da tokiko euskara ez soilik
entzutea, baizik eta irakurtzea, ikustea”.

Ildo beretik hitz egin dute Euskara
Zerbitzutik ere, jardunaldien sorbu-
ruaz galdetuta: “Euskal Herrian euskara
batu berbera erabiltzen dugu leku eta
zeregin guztietan. Egokiago litzateke
bertako hiztunei zuzendutako ahozko
eta idatzizko jardunetan bertako hitzak,
esapideak eta ezaugarriak erabiltzea.
Sakanako batuari bertako hizkeren ko-
lorea eta bizitasuna eman nahi diogu,
gureago senti dezagun”.

Hizkuntza gauza zabala da, eta hizke-
rak asko daude. Egin dezakegu euskal-
kia gure gertuko jendearekin, euskara
batua urrunagokoekin, egin dezakegu
lagunarteko euskara lagunekin eta eus-
kara jaso eremu formaletan. Galdera
da: zein da hizkera ona? “Bada, hizkera
onak denak dira. Bakoitza dagokion es-
parruan erabili beharko dugu, hori jaki-
tea da inportantea”. ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 5. ALDIZ ABIAN

Hernaniarrok erabakiko dugu
2019ko aurrekontuaren **500.000 euro** zertan inbertitu

erabaki.hernani.eus



Landareak usainean



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: ÁNGEL MAR

Landareek usaindu egiten dutela jakina da, gero eta jakinago. Aspaldi genekien animalia belarjaleengandik babesteko landareen martingala: hozkada jaso duen landareak usaina askatzen du, aldameneko landareak jakinaren gainean jartzeko; horiek hostoak mikaztuko dituzte eta animaliaientzako ez dira gustukoak izango...

Landareak beraien artean bezala, animaliekin ere jokatzeko dute usainen dema-plazan. Ameriketara ikertua da honako hau: urrezko makilaren (*Solidago virgaurea*) generoko landare batzuen hostoetan euli batzuen arrak jartzen dira emeen zain, eta substantzia kimiko nahasketa bat hedatzen dute haien amu. Emeak etorri, arrekin ibili eta gero arrautzak jartzen dituzte landareen zurtoinak ziztatuz. Bada, landare batzuk arraren usain horrekin eta beste batzuk gabe jarri eta emeen arrautzak non zeuden neurtu dute. Usainik gabekoetan lau aldiz arrautza gehiago zegoen. Arrautza jartzeko ziztada hori txarra da noski, zauria, eta, hori gutxi balitz bezala, sortuko diren harrek jaio ordurako landareari hozkaka ekingo diote. Atera duten ondorioa zera da: arren usaina aditu



egiten du landareak eta eme errulearen eraso ziztatzailea uxatzeko babesak prestatzen ditu; babes horiek kakalardo eta bestelako belarjaleak ere uxatzen dituztela neurtu dute.

Orkidea batzuen ere ezaguna da. Loreak intsektu jakin baten emearen itxura osoa du, eta arra hura estali nahian lorean pausatzen da. Igurtzi eta igurtzi, polinizazio ederra gauzatuko du: aurretik igurtzitako loreetako polena eman eta lore honen polena hartu hurrengo igurtzialdiko lorean uzteko. Orkidea batzuk areago joan dira. Ispilu erle-lorea edo ispilu orkidea (*Ophrys speculum*) adibide polita da. Lorean duen labeloak edo itxuraldatutako petaloak *Dasyscolia ciliata* erle mediterraniarraren emearen

Ispilu orkidea (Ophrys speculum). Lorean duen labeloak edo itxuraldatutako petaloak Dasyscolia ciliata erle mediterraniarraren emearen sorbalda zehatz-mehatz imitatzen du.

sorbalda zehatz-mehatz imitatzen du: geldirik dagoenean hegoak bizkar gainean bilduta duten kolore urdina du; inguruko iletxoek erlearen sabelaldekoen antza dute, eta goiko petaloak erlearen antenen berdinak dira. Hori gutxi, eta emeak arra erakartzeko erabiltzen duen feromonaren usain bera zabaltzen du orkideak. Ziriari zotza sartzeko, erle eme ernalduak arrek bakea emateko erabiltzen duen usain bera jariatzen du ernaldutako loreak. Utikan erle gogaikarri hori! ■



endanea
garden

943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Lore, kolore eta zapore

Lore eta koloreez gain, landareek zapore berriak eskaintzen dizkigute. Lore jangarriak ezagutu itzazu. **Landatu eta dastatu!**



ASTIGARRAGA

Baratzea lanbide nahi dutenentzako lur eskaintza



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Donostialdeako eta Bidasoako Behemendi Landa Garapenerako Elkarateak baratzegintza profesionalean jardun nahi dutenentzako deialdia zabaldu du Astigarragako Udalarekin elkarlanean: udalaren lursail bat eskaintzen dute sektorean hasi nahi dutenentzat alokairu sinboliko truk. Gipuzkoako Foru Aldundiak duela lau urte abiatutako "Enplegu Berdea" egitasmoaren baitan dago ekimena.

Nekazaritza lur gutxiko bailaran eskaintza zabaltzen

"Gutxi dira nekazaritza lurak gure bailaran, eta are gutxiago baratzea egiteko modukoak". Mikel Zendoia Laskarai Behemendiko kideak azaldu digu neka-

zaritza lur horietako askok jabetza pribatua dutela, eta jabe horiek normalean ez dituztela sailak hainbat urtetarako utzi nahi izaten. "Baratzegintza ekologikoa egin nahi duenak zenbait inbertsio egin behar ditu, eta horretarako lurraren errenta urte batzuetarako eskaini beharra zaio", dio. Epe ertain-luzerako errenta horiek lortzea zaila da, ordea.

Zailtasun horri aurre egiteko jarri dute lursailaren eskaintza abian. Gazteak nekazaritzan hasteko bideetako bat izan daiteke, bultzatzaileen ustez, lur publikoen eskaintza egitea. 9.500 metro koadro inguruko lursaila beharrezko azpiegituz hornitu dute Aldundiaren diru laguntzarekin: sarrera, lanabesak gordetzeko etxola, eta zundaketa bidez jarri duten ur depositua. "Ura eta lursaila badauka. Hortik aurrerako inbertsioak lursaila kudeatuko duen pertsonak egin behar ditu".

Deialdia edonorentzako zabalik

Eskaintzen den lursaila Astigarragan izanik ere, deialdia edonorentzat zabalik dagoela azpimarratu du Behemendiko kideak. Bete beharreko baldintza nagusia: bertan jorratuko den baratzegintza ekologikoa profesionala izatea, lursaila hartuko duenaren lanbidea. Lursailaren esleipena egiterako oan hainbat alderdi kontuan hartuko dituzte: "Gazteek, nekazaritzako formakuntza eta esperientzia dutenek edota emakumeek lehentasuna izanen dute. Astigarragako izateak badu gehigarri bat, nahiz ez den beharrezkoa".

Lursailaren errenta oztopo izaterik ez dute nahi, horregatik errenta sinbolikoa izanen du. Maiatzaren 15a arte egin daitezke eskaerak Behemendin. Interesa dutenak izena ematera deitu ditu Zendoiak, Astigarragakoaz gain, aurrerago inguruko beste zenbait tokitan lur eskaintza gehiago egongo direla aurrakusten baitute. ■

maiatzak 18, 19, 20

NAFARROAKO
III. Azoka Ekologikoa
IRUÑEKO AUTOBUS GELTOKI ZAHARRA

EGUNERO: Produktu dastaketa, hitzaldiak, haurrentzako jarduerak, show cooking... etorri Nafarroako elikagai ekologikoen merkaturik handienera

eko-logikoak
para vivir mejor!

ALIMENTOS ECOLÓGICOS DE NAVARRA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARRAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural
Europea irauten du lan onen irauten

www.navarraecologica.org

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitzen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena!

Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

"BIZITZA BARATZEA DA" KAMISETA

Ainara Azpiazu "Axi"ren marrazkiak ilustratua.

Ezaugarriak:

Kolorea: Txuria.

Neurriak:

Estua:

- L (60 cm luze x 45 cm zabal)
- XL (61x47 cm)
- XXL (63x50 cm)

Zabala:

- M (70 cm x 50 cm)
- L (71 cm x 54 cm)
- XL (75 cm x 56 cm)



ARGIA Jendearentzat musutruk

ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun beste kamiseta batzuk:



"Galderak zabaltzen du bidea" kamiseta

ARGIAren kamiseta. Kolorea: Morea. Mota eta neurri hauxe geratzen da: Estua XXL.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Eskuko ARGIA kamiseta

Joseba Larratxeren marrazkiduna. Kolorea: Txuria. Mota bakoitzean neurri hauek gelditzen dira: Estua (XL), Zabala (M, L, XL).

ARGIA Jendearentzat musutruk



"Txikitik eragiten" kamiseta

Joseba Larratxeren marrazkiak irudikatzen du ARGIAren lema kuttuna. Kolorea: Txuria. Mota eta neurriak: Umeena (7-8 eta 9-10 urte). Estua: (L, XL, XXL). Zabala (M, L, XL).

ARGIA Jendearentzat musutruk

Nork? ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.

Zer? Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...

Nola? Oso erraz. Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.

Zertarako? Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

www.argia.eus/azoka

BIGARREN ESKUKO HOZKAILUA

Hozgailu handia, berri-berria.

Ezaugarriak:

Marka: LIEBHERR.

Neurriak: 60 zm x 60 zm x 169 zm.

Oharrak

Bidalketa moldatzeko:

Abizturko baserri batean dago.

150 euro



**79 salgai ditugu
ARGIAren Azokan:**
argitalpenak, mahai-jolasak,
jantziak, ikus-entzunezkoak,
gorputza, laminak eta mapak,
eguzki-lorez egindakoak,
eta bestelakoak.
**ARGIA Jendeak musutruk
hartu ditzakegun
32 gai ere badira!**

ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun beste gai batzuk:



Korrika egiteko zinta

Gutxi erabilia. Sasoian jartzeko aproposa. Gipuzkoan dago. Jarri harremanetan emailarekin zinta probatzeko eta etxeratzeko.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Sukaldaritzaz gozatzeko errezetak

Laia jatetzeko sukaldari Ignacio Muguruzak azaldutako 44 errezeta, Dani Blancoren argazkiekin.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Musika mini katea

JVC UX-G303 mini katea. USB eta Audio (jack) sarrera. CD irakurlea ere bai, mp3 formatuan irakurtzen duena. Irratia. 2 bozgorailu. Gutxi erabilia.

ARGIA Jendearentzat musutruk

IUS OSCULI, EMAZTEAK EDAN EZ DEZAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Erroma, K.a. VIII. mendea. Kondairaren arabera, Romulok, hiriaren fundatzai-leetako batek berak, *Ius Osculi* (musu emateko eskubidea) izeneko legea jarri zuen indarrean, beste arau askorekin batera. Lege horren arabera, emakume ezkonduak, egunero, senarrari ahoan musu eman behar zioten. Ez zen hura senar-emazteen arteko harremana derri gorrez estutzeko neurri bat, emakumeei nolabaiteko alkoholemia kontrola egiteko bidea baizik: gizonak hatsean antzemango zion emazteari ardoa edan zuen ala ez.

Lehen erromatarrentzat (gizonez-koentzat) alkoholaren kontsumoa eta adulterioa guztiz lotuta zeuden (edaten zutenak emakumeak zirenean soilik). Horregatik emakumeek debekatuta zeukaten alkohola kontsumitzea. Derri gorrezko musuen bidez kontrolatzen zuten hori eta, senarraren alkoholimetra beti nahikoa ez zenez, *Ius Osculi* legeak jasotzen zuen haren senitartekoek ere emazteari musu eman behar ziotela, hasierako emaitza positiboa ala negatiboa berresteko.

Emaitza positiboa zenean zigorra senarraren esku geratzen zen: jipoia, zapuztea... edo heriotza. Valerio Maximok dio Egnazio Mezenio izeneko erromatar batek emaztea kolpeka hil zuela ardoa edateagatik. Eta idazleak esaldi honekin



LOUVRE

justifikatzean zuen zigorra: “Ardo egarritz dagoen emakume orok bertuteari ateak ixten dizkio, eta bizioei ireki”. Eta Plinio Zaharrak azaldu zuenez, alkohola edandako emakumeak maiz gela batean giltzaperatu eta hantxe gosez hiltzen zuten zituzten.

Denboraz, lege zurruna lasaitu zen pixkanaka eta erromatar emakumeei Bakoren plazerraz goatzeko baime-na eman zieten. Baina edateagatik heriotzara ez kondenatzeak ez zuen esan

Erromako hiria fundatzearekin bat, Ius Osculi edo musu emateko eskubidea jarri zuten indarrean. Praktikan, alkoholemia kontrol sexista modukoa zen.

nahi ondo ikusia zegoenik. Bi mila urtetik gora igaro dira eta alkohola edaten duten emakumeei musu emateko edo nahi beste egiteko eskubidea dutela uste dute askok oraindik. ■



Sarkofago edo haragijale

Sarkofago hitzak erro grekoak ditu: *sarkós* haragia da antzinako grezieraz, *phagein*, aldiz, jatea, eta *-o* atzizkiak egilea edo akzioa burutzen duena esan nahi du. Beraz, sarkofago hitzak haragijale esan nahi du eta badu zentzua, kutxa horiek giza haragi hila “jaten” baitzuten. Eta ez soilik zentzu metaforikoan.

Berez, hasieran erabiltzen zuten esamoldea *lithos sarkophágos* zen, hau da, “haragia jaten duen harria”. Lehen sarkofagoak kareharritzkoak ziren eta barruan sartutako giza haragia literalki deskonposatzen zuten, azido-base prozesu kimikoaren bidez; giza haragia azidoa da eta kareharria, berriz, alkalinoa. ■

Aira banindadi ainara bezala

Lehen eguzki printzarekin udaberria datorrenean, Euskal Herriko zeruak txori txioez hantzen dira. Negu minean ere abesten dute ur zipo hormatuetan jauzika. Ehunka kante euskaraz zoramene hori islatzen dute, zoramena eta aldi berean zorigaitza dena funtsean, txoriak anitzetan gure bizitzetan eskas sentitzen dugun libertatea irudikatzen duelako. Gaurko atala Josean Artzeren omenez bihoakigu...



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Herri izaera politikoa ukatzen zaien eskualde frankoren pareko iruditegi mentala daukagu Euskal Herrian. Txoriak dira dolore hori ekartzen duen sinbologiaren ardatzak. Bistan dena minak kolektiboki eragiten duen bezainbat indibidualki ere jotzen du. Gure arbasoek libertate murrizta zuten pertsona gisa: etxekoek eta auzoek larderia pean atxikitzen zituzten, apezek eta beranduago estatuen esku-makilek, bazen norbait zer, noiz, eta nola egin behar zuten azaltzeko eta hori, bizitzaren gunerik intimoenetatik haste.

Erran gabe doa euskal jendarteak, edo gizarteak kasu honetan, biziki eskatzen diola herritarrari. Onartzen ez dugun arren, konpetentzia etengabea gabiltza, zeinek irabazi, ni banauk eta hi bahaiz, hoberena, handiena, perfektuena izatea lehiatuz. Ideia argiak baditugu munduaz eta askotan iritzi orokorraren kontrakoak, eta horrek biolentoak izatera bultzatzen gaitu noiz behinka. Eguneroko zereginetan, pentsamenduetan, zaurietan, hainbeste ohoratzen ditugun txoriak gara, ahluk eta askatasun gehienaz gozatuko dugula ametsetan.

Sineste poetiko batek ere akuilatzen gaitu: ez ote zituen belatzak imitatuz moldatu aurreneko melodiak Zuberoako basa-ahaideen asmatzaileak? Atharratzeko Elsa Oliarj-Ines zinegilea eta Oihan bere anaia musikaria misterio hori zulatzen saiatzen dira *Basahaideak* dokumental berrian. Erraten da halaber txistuaren soinuak, Isturitzeko harpeko hezur zulatu hartatik haste, haizearen eta txoriaren xuxurlak gatibatzea zuela helburu. Gustatzen zaigu naturarekin uztartzen diren istorio ederrak ontzea.

Ohidurazko kanta arrakastatsuez gain, txoriak aipatzen dituzten XX. mendeko abestiak ere ezpain eta zintzur guztien balakatzaille bilakatu dira: Josean Artzeren eta Mikel Laboaren *Txoria txori* distiratsua, eta besteak beste, basa-ahaide batez bukatzen den Maddi Oihenarten ahotik isuririko *Idek* hura Peio Serbielle kartzelan zegoela zabaldu zuena. Ez dut ahortziko Ken Zazpi taldeak Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin handioski plazaratu zuen *Hegoak astindu* hunkigarria. Presio soziala astuna denean zinez premiazkoa da txoriaren parpaila kuttun edukitzea bihotzaren barnean *burn-out* arriskutik urruntzearen!

*Xoriñuak kaiolan
Tristerik du kantatzen
Duelarikan zer jan, zer edan
Kanpoa du desiratzen
Zeren, zeren
Libertatia zoiñen eder den.*

Horrela hasten da askatasuna eta gaitibu egotea parez pare ematen dituen euskal kantarik hunkigarriena. Amaia Zubiriak grabatu zuen Pascal Gaignen musikarekin. Galdera hunkigarria egiten zigun: zer dugu hobe bizitza fisikoa ziurtatu ala gosea pasatu libre egonez? Askotan, dudak ditugu eta txorien maineran biak nahian, frustratuak eta malarus gabiltza, kanpoan hezur eta luma dagoen txoriaren inbidia eraginez.

*Hik, kanpoko xoria,
So egiok kaiolari
Ahala balin bahedi
Hartarik begira hadi
Zeren, zeren
Libertatia zoiñen eder den.*

Askatasuna hemen pertsonala da, intimoa, are gozoagoa maite dugunaren aldamenen hedatzen denean. Sabe-

laren hutsa jasangarriagoa liteke alabaina amodioaren berotasun goraipatuarekin, baina hau gabe, kaiola edo libertatea onartu ezinak direla diosku bertsolariak:

*Barda amets egin dut
Maitia ikusirik
Ikus eta ezin mintza
Eztea pena handia
eta ezin bestia?
Desiratzen nuke hiltzia.*

Zorigaitzaren ikurra da txoria, abeslariak bere xedeak betetzea lortzen ez duenean. Hala agertzen digu *Xoritto* nora *hoa* olerkiaren egileak ere, azken kopletan maitasunari *sekulakoz adio* diolarik. San Josef ermita Larraineko mendietan datza eta Espainiara pasatzear dago txori migratzailea:

*San-Josefen ermita desertian gora da:
Espainialat joaitian han da ene pausa-
da.*

Gibelilat so egin eta hasperena ardura.

*Hasperena habil *hoa* maitearen borta-
la.*

Habil eta erran izok nik igorten haidala!

Bihotzian sar hakio hura eni bezala.

Ez dakigu gizona ala emaztea duen *xorittoak* irudikatzen. Kantariak, dena delakoan, toka hitz egiten dio hegaztiari. Funtsean ez du halako axolarik ere, partitzen denak eragiten duen minaz kontzientzia duelako eta gelditzen dena maitasunari uko egitera behartua delako:

*Amorio, amorio, nahi duenak har dio;
Harekila bizi denak plazer güti har
diro:*

*Nik aldiz erran diruat sekulakotz
adio...*

Happy end askorik ez da euskal abes-
tietan.

Euskal kantutegian txorietan aipatue-
na agian erresiñola da. Ahots karkarez
eskaini eresi zenbaiten bizkarrezurra
osatzen du hoge gramoko baino gutxiago
dituen hegaztiak. Txiolari trebea base-
rri guneeetan ausarki barreiatua delako
bizidunen adiskidea eta hauen penen
biltzailea bihurtua da:

*Xori erresiñoleta ederki kantatzen
Bazter guziak ditu xoratzen
Bard'arratsian
Sasi batian
Biga baziren:
Eder ziren
Xarmant ziren,
Manera oroz
Eta elgarrez anitz agrados.*

Bertso hauetako txoriak mutiko eta
neskatxa (edo gizon eta emazte) au-
sartak dira, larrua jotzen dabiltzanak,
munduaren begietatik urrun. Baina
bada beti norbait zelatan: ehiztaria.
Gorputzen pataskan ari diren arra eta
emea aintzakotzat hartuz memoria ko-
lektiboak ahanzten ez dituen koplak
sortzen ditu berehala. Lekukoa ikus-
tean, arrak burua altxatzen du eme bi-
luzi eta izutuaren gerizatzeke. Umeaz
gogoratzen dira:

*Eta orduan berean, nontsu zen emia,
Sasi handian barna sartua?
Hor apaindurik
Ta lumaturik
Bere papoa
Kukurusta
Harroturik
Jarri zenean
Umez oroitu zen ber'ohantzian!*

Txori erresiñola gurasoek preso atxi-
kitzen eta beraiek hautatu gizon bate-
kin ezkontzera bortxatzen duten neska
gaztea ere izan daiteke, hala nola *Txori*
Erresiñola eresi hunkigarrian:

*Txoria zaude ixilik ez egin kantürrik,
Txoria zaude ixilik ez egin kantürrik
Eztüzü probetxürrik ni hola penatürrik
Ez eta plazerik
Ni tunban sartürrik...*

Erresiñola gaixoaren moduan herio
nahikunderaino desesperatzen doa xe-
deran harrapatua geratu neskatxa. Nor
den ez dakigun ahots batek sokak laxa-
tzea eta Orhi bortuan zehar ihesi joa-
tea proposatzen dio, salbamendua atze-
rrian bailtzan:

*Xoria zaude ixilik ez egin nigarrik,
Zer profeitü dükezü hola aflijitürrik?
Nik eramen zütüt xedera laxatürrik,
Oriko bortütik
Ororen gañetik.*



» Herri izaera politikoa
ukatzen zaien beste
eskualde frankoren pareko
iruditegi mentala daukagu
Euskal Herrian.
Txoriak dira dolore
hori ekartzen duen
sinbologiaren ardatzak

Erdi Aro bukaerako Alos Dorreako be-leak buru zokoan ditugu. Eta leihoetan dira oraindik *kroa kroa kroa kroa*. Aina-ra parrastak halaber. Nola ez? Papo gorriak berri emaile lanetan hurbildu zaizkigu Guk taldearen *Herria zain* 1985eko albumeko kantuan:

*Papo gorri xuri xori polit batek
Goizean ekarri zautan berria
Goizean libratu zela herria!*

...
Langileak nausi dirade jarri liberta-tian

*Gure lana guri gure hazkurri
Bihotz ederrian...*

Euskalduna ez da ibiltzen ahal ortzian biribilketa sakonean miresten diren arranoak begietsi gabe. Nafarroako ez-kutuan agertzen den hegaztiari abesti franko eskaini zaizkio, gaizki finitzen den amodiozko istorio hau adibide:

Arranoak bortüetan gora dabilta he-galetan:

Ni ere beste ordüz andereki kanbere-tan,

» Askatasun pertsonala,
zorigaitza, maitasuna,
sexua... aipatzen dituzte
txoriak protagonista
diren kante

Orai aldiz ardüra nigarra dizüt begie-tan...

Bertsolariak, arranoaren metafora baliatu ondoan, emazte-gaiak abando-natzea bankarrot larritzat jotzen du. Jendea ez da zeruak urratzen dituen he-gazkinaren ahaidea. Nehondik ez.

*Hanbat düzü afljitürük, libertatia
galdürük,*

Pena dolorez kargatürük, osagarritz ga-betürük,

Oro berak kausatürük, amoriuak tra-ditürük...

Zerrenda luza genezake. Gure garu-netan txertatuak dira txorien itxurak. Alor horretan handiek eta txikiek gus-tu berdinak ditugu. Haurrentzat hor dago *Xoxoaren kanta* jostakina, hatsa hartu gabe abesten dena, umeen esku potoloak bata bestearen kontra klaska-raziz:

*Xoxoak galdu du burua,
Mokoa, lepoa, begia...*

Xoxoa...

*Nola kanta, nola txirula,
Nola kanta xoxoak...*

Miseria, beldur, tragedia guztien ar-tetik, edozein adinetan, zoriontsu loak hartzeko bideak ziren abesti salmokatu hauek. Preziatuak eta biharamun soti-len berme-harri. ■



OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK
www.argia.eus/azoka
☎ 943 371 545



Saioa Olmo

Artea eta gizartea



Xabier Gantzarain
@gantzarain

EUSKADI TRADEMARK (2002-2008)

Proiektuaren baitako argazkia

Objektuak baino egoerak sortzea ez da berria artean. Esan liteke objektuak eurrak ere egoerak sortzeko bitartekoak baino ez direla, izan eskultura, izan koadro, marrazki, zernahi. Animo eta arima egoerak sortzeko, aldatzeko, bideratzeko izan dira beti arte lanak. Indibiduo zein kolektiboenak.

Alderdi horretatik heltzen dio arteari Saioa Olmo Alonsok (Bilbo, 1976ko maiatzaren 10a). Proiektu artistikoak garatzen ditu, ideiak, haiek hartuko duten forma ere zaintzen duen arren. Baliteke inork entzuna izatea 2007an Consonnirekin batera burutu zuena: *Atrakzioen Itzulera*. Bisita gidatuak an-

tolatu zituen, hasierako suziri eta guzti, Artxandako jolas-parke abandonatura.

Beste hainbat eta hainbat proiektu burutu ditu, tailerrak eman ditu, ikerketak egin ditu, diseinua eta komunikazioa ere landu ditu. Bere webgunean daukazu denak ikusgai: ideatomics.com.

Niri, Andoaingo Basteron ikusi nuenetik, *Euskadi TM* beti iruditu izan zait oso intuizio fina. Halaxe dio artistak aurkezpenean: “EUSKADI™ kultura jakin baten nortasunaren gaia, kasu honetan euskal kulturarena, balio ekonomiko gisa lantzen duen jardunbidea da. Galdera bat mahaigaineratzen du egitasmo honek: ‘EUSKADI’ komunitate, kultura

edo lurralde batasun baten izena izateaz gain, produktu baten marka-izena ere ba al da? Kontsumoaren eta ondasunen gizarte honetan, kultura eta nortasun-ezaugarriak balio ekonomiko nola bihurtzen diren aztertzen du eta baita, esparru komertzialak kultura jakin bat zabaltzean izan dezakeen zeregina ere”.

Proiektua burutu zuenetik urte asko pasa da, eta bere intuizioa erabat bete dela esan daiteke: ezer izatekotan, marka komertziala da Euskadi. Eta Euskadi saltzen du.

Haizea Barcenillarekin batera Wiki-historiak proiektu garrantzitsua bultzatu zuen. ■

GUREAN

Dokumentalen indarra, animalien egoera salatzeneko

Asko dira azken urteetan munduko animalien egoera latza salatu nahi izan duten dokumentalak: *Earthlings*, *Cowspiracy*, *The Cove*, *BlackFish*, *Meet Your Meat*, *The Elephant in the Living Room*... Denak ere intentzio batekin sortuak: ikus-entzunezkoen bidez ikusleari erakustea, jateko, janzteko dibertitzeko edo esperimentatzeko esplotatuak izaten diren bizidunen bizitza tamalgarri eta penagarria. Lan horiek guztiek nazioarteko animalia askoren egoera salatzen dute; baina gurean ere bada lan bat animaliek tratatu txarrak jasaten dituztela islatzen duena: Askekintzak ezkutuan grabatutako irudiak erabiliz osatu duen *Gurean* dokumentala.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Dokumentalak hogeita hamar herritan eta esplotazio ugaritan zehar garraiatzen gaitu, animaliek festetan pairatzen duten zapalkuntza agerian uzten. Euskal Herriko festetan egiten den animalien erabileraren inguruko eztabaidari heltzeko garaia zen eta lan honi esker badirudi hala izango dela. Hori da Askekintzak lau urtetan landu duen dokumentalaren helburua; gure barrua nahastu eta kontzientzia piztea. Gaia jorratzen duen lehenengo dokumentala da, urteetako ikerketaren emaitza. Euskal Herriko festetan urtero ehun-ka animalia gatibatzen, esplotatzen eta erabiltzen dira. Sokamuturra, idi eta zaldi demak, ahari jokoak, zezenketak, arrantza eta ehiza txapelketak, asto lasterketak, animalia erakusketak, zaldi edo asto lasterketak eta abar. Adibideak

amaiezinak dira, baina ezaugarri bat dute amankomunean: erabat bidegabek direla.

Oso zaila egiten zait era honetako lanak ikuspegi zinematografiko-tekniko hutsetik aztertzea, helburua hain argia eta garrantzitsua izanda, intentzioarekin soilik geratzeko joera izaten dudalako. Kasu honetan hala egingo dudan arren, horrek ez du esan nahi tekniko-ki eskasa denik, alderantziz. Ezkutuko irudiak izan arren, irudi zainduak, txukunak eta jarraikortasun aldetik oso landuak direlako. Linas Kortaren argazki-zuzendaritza lan aparta iruditu zait zentzu horretan. Minutu guztietan garraiatzen gaituen off-ahotsak ere izugarri laguntzen du eta irauten dituen 40 minutuak ezin hobeto aprobetxatuak daude.

Baina alor hain zehatzetan murgildu gabe, dokumental formatuak eskaintzen dituen dohainak aipatu nahi nituzke. Gaur egun Internet eta sare sozialen indarra paregabea da, bidegabekeria ugari salatzen tresna boteretsua bilakatu daitekeelako. Baina salaketa gehienak ostrazismoan galtzen direla iruditzen zait. Bertxiotu edo zabaltzen ditugu, bai; irauten dituzten segundo horiek garuna eta bihotza nahasten dizkigute, baita ere; baina hurrengo egunak berdina izaten jarraitzen du: beste irudi batzuk; eta hurrengoan beste batzuk. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua eta interesgarria dokumental formatua erabiltzea, kasu honetan animalien egoera salatzen. Ikus-entzunezko hauek duten indarra eraginkorragoa iruditzen zait. Euskal Herriko zinema areto txiki eta



Argazkian Sarako ahate-jokoa. 'Gurean' dokumentalak Euskal Herriko jaietan animaliek jasaten duten tratu txarra modu eraginkorrean bistaratzen da.

kultur-etxeetan jende ugari ari da pila-tzen adibidez, Askekintzak grabaturiko irudi hauek ikusteko. Ezagutzen ditugu bai, askotan entzun ditugun adibideak dira, bai. Baina begiekin ikusten ditugunean, isilik eta pantaila handi batean, iza-ki hauen sufrimendua begietatik barrena sartzen zaigun une jakin horretan, ez al zaizue iruditzen sekulako indarra hartzen duela eta hartzaileari hobeto iristen zaiola? Niri behintzat bai. Lehen aipaturiko *Earthlings* dokumentalaren adibidea izan liteke adierazgarriena. Gehiegikeria irudituko zaizue, baina 2005. urtean Shaun Monson-ek zuzendu zuen lan honek, milaka pertsonaren ikuspegi aldatzea lortu zuen. Joaquin Phoenix narratzaile zela, bertan ikusten diren irudiek halako eztanda sortu zuten, jende askoren begiak behin betiko irekiz.

» Interesgarria da dokumental formatua erabiltzea animaliek jasaten duten tratua salatzeko: formatuak indar handiagoa ematen dio

» Festak gure gizartearen ispilu dira eta haietan beste hainbat aldarrikapen ere egin behar diren arren, ezin ukatu animalien zapalkuntzaren aurkakoak duen lekua

Gurean lanaren azken minutuetan, ikusi ditugun irudi latz horien errepaso txiki bat eginez eta Apalatxaren *Lotura pozoi-tsua* abestiak irudiak bustitzen dituen bitartean, azken hausnarketa garrantzitsu horretan murgiltzen du ikuslea. Ikusi duguna ez dadila hor geratu. Festak gure gizartearen ispilu dira, eta festetan jada

aurre egin beharreko arazo ugari baditugu ere, ezin ukatu animalien zapalkuntza bukatzea aldarrikapen horiei batu behar diegula. Gure herriak aurrerapauso ugari eman ditu historian, harrotasunez, gizarte justuago bat sortzearen alde. Orain garaia iritsi zaigu festetako animalien erabilera zalantzan jartzeko. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Irla Chumea



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Gurean portuari eskainitako obra goreneta-ko bat izango da segur aski Koldo Izagirreren *Sua nahi, Mr. Churchill?*. Portutik abiatuta, itsasoetan barrena egindako bidaiari lotuko zaio gehiago Aurelia Arkotxa bigarrena duen sorkuntza lanean, *Septentrio*. Portuan baina jendea, horixe zuen ardatz Izagirrerenak, jendea, halakorik gabe ez baitago portu, ez itsaso, ez amaren seme-alabarik. Bazter utzi gabe giza generoa, garrantzia berezia hartzen dute Arkotxarenean lekuek, geografiak, zapaltzen ditugun itsaso-lurrek.

Nagusiki narrazio liburua *Septentrio* halaber, Aurelia Arkotxaren erudizioa ("abenturosa eta are erratikoa ere") bilduko luke, Kenneth White poeta eskoziarrak hitzaurrean dioenagatik: "Liburu batez hasi zitzaidan. Hartan bermatuko zen bere erudizio guzia beste mundu batera eramanez, bere barne-izaeraren oldarraren osoki adieraztera". Emaizta: lau narrazio handi, narrazio txiki ugari betetakoak (eta poema gutxi batzuk bukaera partean, baten bat pop abesti baterako egoki: "*Grand Manan V ferryan / bi marinel cribaggean / jos-tetan ari / killing time*").


Lau narrazio, bilakatzen direnak, adibidez, populu bitxi katalogo, "Pliniok bere Historia Naturalean eta bertze anitz autoreek haren ondotik" egin izan duten moduan. Bilakatzen direnak, adibidez, biderako kontseilu xume, oso zuhurak denak, esaterako hau: "Hiru eguneko arrotza eta arraina, usain gaitz direla". Bilakatzen direnak, adibidez, mitologia bat baino gehiagoren

Septentrio

AURELIA ARKOTXA

Alberdania, 2001

Aurelia Arkotxa Mortalena idazlea (Baigorri, 1953).



ez dugu esango birrintzaile, baina bai kontrapuntu, edo behintzat osagarri. Esaterako euskal baleazaleena: "Eta bazekiten, bidaiant euskaldunek, marinel haiek ez zirela euskal kantu zahar batzuetan aipatzen diren 'indiano salbaiekin' eta 'iskimau gizabestiekin' beti ontsa portatu". Edota Quebec tatxarrik gabearena, herri indigenen zapaltzaile ere agertzen baita orriotan: "Bakarrik frantsesez mintzatu behar genuela eskolan". Ondorioa: "Hemen, Quebecoko 'autoktonoek' ez dute PQren alde bozkatu".

Esan dugu: lekuek, geografiak, zapaltzen ditugun itsaso-lurrek garrantzia berezia hartzen dute Arkotxarenean. Horien guztien izenek ere, Portutxo, Ophorportu, Irla Chumea, izendegi kurios, gertuko, baina aldi berean exotiko bat osatzeraino, Oskar Alegriaren *Emak Bakia Baita* hartan bezain iradokitzaile. Portutxo, laket portu, irla xume bat, Aurelia Arkotxak bigarrena duen sorkuntza lan hau. ■

» DISKOA

Stoner blues rock doinu beroak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Berez, kuartzoa mineral gogor bat da, oso gogorra. Izenaren esanahiarekin bat etorrira, Kuartz bikoteak egiten duena ere gogorra da, trinkoa. Hard rock, stoner rock eta blues rock kutsuko doinuen bidez soinu horma sendoa eta bortitza eraikitzen dute, itzela, gitarra riff basatiekin, distortsioarekin, errepikapenekin eta indar handiarekin.

Doinu beroak dira, biziak, eta kantak ez dira luzeak (hiruzpalau minutuko zazpi kanta dira orotara), beraz, disko osoa berehala entzuten da, ohar-tu gabe. Gainera, jendaurreko emanaldietan sampleak erabiltzen dituzte kanten arteko loturak egiteko, emanaldiak etenik gabe egiteko eta arinagoak izateko.

Bi musikari bakarrik dira, baina gehiago direla ematen du kantak entzuterakoan. Musika-ri trebeak, eta bi instrumentu besterik ez erabili arren, oso ongi biribildutako doinuak sortzen dituzte. Ibes Mongabure (gitarra eta ahots nagusia) eta Oihan Delavigne (bateria eta ahotsak) Bastidakoak dira (Nafarroa Beherea). Kuartz sortu aurretik Inguma eta Urmurao taldeetan aritzen ziren. 2016an hasi ziren elkarrekin jotzen eta 2018ko martxoan kaleratu berri dute beren lehen lana.

Kuartz

KUARTZ

Autoekoizpena, 2018

Kuartz taldea jendaurreko emanaldi batean.



Kantetan kritika soziala egiten dute eta beren kezka ere azaltzen dituzte, harremanez, izateaz: "Zabor mediatikoan hitzak usteltzen, haien sentsu organikoa desegin eta interes gabeko borroka eramaiten" (*Xutik hilak*), "Suntsitu berregiteko, nik nahi dutan neurrian, bestea

bost axola on egiten dautano" (*Suntsitu*), "Sortzeko unea, ta beldur hutsa, jasotzeko behar da, emaiten jakin" (*Etengabeko istoria*), "Iraganetik gerora zeharkatzen duen zubi hau luzea da, oraineko zubia amaigabea" (*Blues kiratsa*).

Egunotan oso lanpetuta dabilta diskoa aurkezten, emanaldiak egiten. Apirilean Hendaiaiko eta Uztaritzeko gaztetxeetan aritu dira, Baigorri ere bai Nafarroaren Egunean, Zumaiaiko gaztetxean ere jo dute, maiatzaren 4an, eta datozen asteetan saio gehiago ere egingo dituzte, han eta hemen. Sortzen duten soinu horma bertatik bertara nabaritzea eta nola egiten duten ikustea sentipen berezia izango da, dudarik gabe. ■

Metaforak egia bihurtzen direnean



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

ARGAZKIA:SARA RODRIGUEZ

LIBEREN KONTZERTUA

Apirilaren 24an, Parral tabernan, 20:30ean.

Metaforiko aritzeak hori dauka: erori eta berriz altxa, errautsetatik berria sortu, aurrera erori, hobe kiskaltzea herdoiltzea baino...

Besterik da, ordea, nork bere azalean bizitzea. Halaxe gertatu zitzaion Libetareiri, apirilaren 21ean: Urretxun eman behar zuten kontzertura bidean, derrepentean, kotxeak su hartu zien, eta, zorionez, beraiek onik atera baziren ere, autoa eta barruan zeuden musika-tresna asko errauts gelditu ziren. Eta, ziur, metafora guztiak su horretara bertara botatzeko gogoia izan zutela. Etsigarria izan behar du. Etsigarria izan behar du, gainera, jakiteak, adibidez autoek ez bezala, musika instrumentuek ez dutela asegururik, zeinak balore guztia ez, baina diru pizarren bat emango dizun, karitatez, behintzat. Musikari lanean dabiltzanen prekarietatearen beste adibide bat hauex.

Ez dut, beraz, metaforarik erabili nahi sutea izan eta handik hiru egunera Parral tabernan eman zuten kontzertuaz

hitz egiteko. Ez errautsik, ez erori eta altxatzerik, ez ezer.

Dudarik gabe, presente zegoen, noski, istripua. Eta nabaritu zitzaion, noski, taldeari. Ez tristuragatik. Ez zen han penazko ez hitzik ez jarrerarik izan. Malkoak, bai, amorruzkoak. Hirugarren kanta-edo izango zen, azken laneko *Bidean*, Libek kantuaren ohiko estiloa apurtu eta "aurrera erortzen gara bidean" oihukatu zuenean malkotan, eztarriko korapiloa askatuta-edo. Baina umoretik ere izan zen, taldekideek behin baino gehiagotan egin baitzuten umorerako bidea, karga kendu nahian edo. Ez baita tentsio gehiegi komeni.

Ilargia erori da lana aurkeztera zetozen, Libe Garcia de Kortazar eta bere lagunak, nahiz eta ez zen Gasteizen jotzen zuten lehen aldia. Onartzen du, ordea, lan honek zuzeneko entzunaldi bat baino gehiago. Zuzenekoetan nabarmen irabazten baitu diskoko lan dotoreak. Rocka du oinarri, baina nolabait ere gor-

dea, kontenitua. Eta zuzenean bandak ematen dio halako dentsitate bat diskoaz haragokoa.


Azken laneko eta aurrekoko kantuak eskaini zituzten boskotean: bi gitarra, baxua, bateria eta teklatura; eta, noski, ahotsak. Azken hau azpimarratzekoa iruditzen zait, errezeloa baitut inork gutxi zaintzen dituela kantatzeko moduak Libe eta Izaki Gardenak-ek adina (taldekide asko bietan daude). Ahots nagusia, kasu honetan Liberena, argi eta ozen entzuten zen. Ahots laguntzailerak, berriz, elegantzia, konponketatan gehiegi kargatu gabe, edertzeko beste ezertarako ez zeuden.

Eta ederra izan zen emanaldia. Berezia. Bestela ere hala izango zelakoan nago, baina egoerak hala dira eta zer egingo zaio. Batean eta bestean jotzen ariko dira orain, eta gonbidatzen zaituztet kontzertuetara joatera. Inguruan dugun bandarik interesgarrienetako bat zuzenean ikusteko aukera ez galtzekoa da. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Gaia: Bizkaiko gizonezko idazleak



Ezker-eskuin:


1. Txiki. Egiten duena, ekintzaile. Koroa duena. 2. **Unai...**, algortar honek, Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi zuen bere lehen nobelarekin: **SPrako tranbia**. Galioaren ikurra. **Joanes...**, idazleaz gain, zinema eta telebistako gidoigilea, eta film eta telesailen itzultzailea da. **Idazle gisa, ia genero guztiak landu ditu, haur literatura liburu ugari kaleratu ditu.** 3. Gertu, prest. Zati, puska. 4. Ur bila. Berriketan. 5. Oihu, garrasi. 6. Lantegi. 7. Haurtxo. Zuberoako herrixka. 8. Nafarroako herria. Arsenikoaren sinboloa. Seta (alderantziz). 9. Lasterka, korrika. Muinoxka. Presio-unitate. 10. Ihia. Talde lana, elkarrekin eginiko lana. Pertsona edo toki izenak biltzen dituen zerrenda.

Goitik Behera

1. Infusio bizigarria. Kariaz. 2. Berrogei erromatar erara. Euskal jainkosa. 3. Jainko grekoa. **Lutxo...**, **Nontzeberri webgunearen sortzailea, besteak beste, Paperezko hegazkinak idatzi du.** 4. Kriptonaren ikurra. Zaletasun atzizkia. 5. Erbioaren ikurra. Buruzagi arabiar. 6. Requiescat In Pacem. Agur. 7. Zuberoako herrixka. 8. Nabari. 9. Kolpe, talka. 10. Dut (alderantziz). 11. Igitatzea. Pisua, karga. 12. Bakardade. 13. Galde partikula. Kasik. 14. Igo. 15. Fruitu garratz. 16. Apustu egiteko hitza. 17. Rutenioaren ikurra. **Jon...**, **Basauriko idazle polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibidez idaztea, eta opera kantaria ere bada; sortu dituen hogeitau bat liburuen artean bidaia-narrazioak (7 Kolore, Tubabu, Oroituz, Griot...) eta nobela beltzak dira nagusi.** 18. Baratze (Bizkaian). Egoki. 19. Akats, narrio (alderantziz). 20. Dauzka. Bigarren letraren izena. 21. Iheskorra. Zilarrenaren ikurra. 22. Ño, tori! Harnabar.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.



5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Upel.
2. Soka sendoa.
3. Pilotan jokatzeko tresnak.
4. Emaizta, dohaina.
5. Zepoa, segada.



Ebazpenak

5x5:

1. Kupel
2. Unama
3. Palak
4. Emar
5. Lakio

Goitik behera: 1. Tea, kausaz, 2. XI, Mart, 3. Io, Egi, 4. Kt, Tm, 5. Et, Xeke, 6. RLP, Diosal, 7. Arue, 8. Ageri, 9. Kaska, 10. Ted, 11. Igit, Zama, 12. Bakartasun, 13. Al, la, 14. Igan, 15. Lmoif, 16. Ezeiz, 17. Ru, Arreke, 18. Ort, On, 19. Akat, 20. Ditu, Be, 21. Uxoa, Ag, 22. No.

Ezker-eskuin: 1. Txiki, Aktibo, Koroadun, 2. Elortzaga, Ga, Urkxo, 3. Prestik, Taro, 4. Urketa, Autuan, 5. Deidat, 6. Talle, 7. Umezo, Zalgize, 8. Sagues, As, Amet, 9. Arinka, Muinoxko, Bar, 10. Zia, Elkarlana, Izendegi, 11. Teat, 12. Zia, Kausaz, 2. XI, Mart, 3. Io, Egi, 4. Kt, Tm, 5. Et, Xeke, 6. RLP, Diosal, 7. Arue, 8. Ageri, 9. Kaska, 10. Ted, 11. Igit, Zama, 12. Bakartasun, 13. Al, la, 14. Igan, 15. Lmoif, 16. Ezeiz, 17. Ru, Arreke, 18. Ort, On, 19. Akat, 20. Ditu, Be, 21. Uxoa, Ag, 22. No.

Bettina Cruz Velázquez. Lurraren defendatzaile indigena



Gaztetatik engaiatua

"Ikasle mugimenduan hasi nintzen 13 urterekin, herrian bertan, garraioen merkatzearen eta hezkuntzaren alde. Gogoan dut amak babestu ninduela, beste guraso batzuekin batera, egiten genuena bidezkoa zela iritzita. Nekazal ingeniari-tza ikasi nuen ondoren Mexikoko UNAMen, eskualdeko landa garapena Chapingo unibertsitatean eta lurralde antolaketa Bartzelonan. Ezkondua naiz eta bi alaba ditut. 2012an kartzelatu ninduten, aberastasun nazionalaren kontrako delituak leporatuta. Nire senarrak ere mugimenduan parte hartzen du, berriki sikarioak bidali zituzten haren bila lantokira eta bolada batez eskualdetik kanpora alde egin behar izan du".

Mexikoko Oaxacako Tehuantepec-eko istmoan sortu zen Bettina Cruz Velázquez (Juchitán de Zaragoza, 1962) eta han bizi da. Gaztetatik ibili da borroka sozial eta politikoetan engaiatua eta, egun, Indigenen Kongresu Nazionalak (CNI) aukeratutako Indigenen Gobernu Kontseiluko (CIG) gobernu organoaren batzarkidea da. Bere lurraldean enpresa handiak –tartean euskal enpresak– eraikitzen ari diren aerosorgailu parkeen aurkako mugimenduko buruetakoa dugu.

"Iberdrola berdez mozorrotzen da"



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA BIKANDI

Energia eolikoaren aurka zaudete?

Ez, lurraren berotzea moteldu dezaketen energia berriztagarrien alde gaude. Inposatzearen aurka gaude, ordea, gure bizimoduaren aurkako garapen eredu arrotza ezarri nahi baitigute diru gehiago irabazi beste helbururik ez duten enpresa handiek. Gainera, energia us-tez berdea ez da hain berdea. Adibidez, Iberdrola aztertu dugu: berdez margo-tzen du bere burua baina sortzen duen energiaren %4 besterik ez dator iturri berriztagarrietatik. Ez dute berotze globala geldiarazteko asmo zintzorik. Enpresek karbonoaren merkaturatu dute, hau da, karbono bonuak eros ditzakete euren karbono isurtzeak moteldu gabe. Lurraldeen eta jendeen esplotazio prozesu asko daude haize sorgailuen eraikuntzan. Nahi dugu jendeak era integralean ikusi ahal izatea energia eolikoaren kontua, ez dezatela energia, haizeak sortuta egonda ere, berez berdea delako ideia saldu.

Nola hasi zen parke eolikoaren eraikuntza Oaxacan?

Tehuantepec-eko istmoan bost herri in-

digena bizi gara eta, gure zoritxarrerako, eskualde haizetsua da. Ez genuen espero haizea gure hondamendiaren abiapuntua izango zenik, izan ere, gure hizkuntzan haizea zein arnasa "bi" hitzarekin izendatzen ditugu. Kioton eta Parisen hartu ziren erabakien ondorioz, trantsizio energetikoarekin konpromisoa hartu du Mexikok ere, energia berriztagarriak ustiatzeko. Bada, sistema kapitalista globala planeta osoko lurretara hedatzen da, herriei ondasunak eta baliabideak kenduz. Hor hasi dira agertzen gurean enpresa handiak, batzuk zuek ezagutuko dituzuenak: Gamesa, Fenosa, Acciona, Renovalia Energy, Abengoa, Siemens...

Printzipioz onuragarria beharko luke eskualdearentzat.

Enpresak gure eskualdearen garapenerako ari omen dira inbertitzen, denontzako lanpostuak sortzeko, baina gauzak ez dira horrela. Hasteko, gobernuak mila milioi dolarreko inbertsioa iragarri duenean inoiz ez du esan inbertsio horren %80 teknologian geratuko dela, Mexikotik kanpo, teknologia sortzen den gu-



neetan. Beste %20 parkea instalatzen ari direnek eramaten dute eta %0,1 jasotzen dute lurren jabe diren nekazariek. Lege hizkeran idatzitako 17 orrialdeko kontratua sinarazten diete idazten eta irakurtzen ez dakiten indigenei. Neoliberalismoa indarrean sartu zenetik gobernu energia sorkuntzatik at dago eta sektorea espekulatzailen esku dago. Milaka hektarea bereganatu dituzte, dagoeneko 1.925 aerosorgailu ezarri dituzte 25 parke eolikotan eta gobernauak 3.000 megawatt gehiago ezarri nahi ditu. Eragina oso handia da lurraldean.

Zein da parkeen eragina komunitateetan?

Era askotan eragiten dute: ezberdintasun sozialak areagotu dira, lurra zatikatu egiten da, nekazaritza eta abeltzaintza egotzi... Deforestazioa da beste ondorio bat, bideak egiten dituzte eta sorgailuen inguruak soildu egiten dituzte plataformak eta garabiak ezartzeko, animalia asko hiltzen dira... Ekologian galera handia dakarte. Oxfam-ek egindako ikerketa baten arabera, inguruko biztanleen %46 pobrezia larrian bizi da.

"Ez genuen espero haizea gure hondamendiaren abiapuntua izango zenik, izan ere, gure hizkuntzan haizea zein arnasa 'bi' hitzarekin izendatzen ditugu".

Bizi maila urratzen ari da, nekazaritza eta arrantza ekoizpenak gero eta urriago dira. Prostituzioa ere dezente igo da, proiektu handi hauetako langile gehienak urrundik datozen gizonezkoak direlako. Bitartean, argindarraren tarifa igo dira eta, paradoxikoki, ordaindu ezinik bizi dira eskualdeko familia asko.

Zer egin dezakezue horren aurrean?

Herri indigena moduan eskubidea dugu galdatuak izateko, aurretik informatuta eta libreki erabakitzeke. Mexikok sinatu dituen nazioarteko itunetan dago hori.

Zergatik ez da egiten?

Ez gaituztelako pertsonatzat hartzen. Horren erakusgarri da enpresa horiek ez dutela zergarik ordaintzen. Argindarraren garestitzearen aurkako eta lurrraren defentsarako mugimendua sortu da gurean, baina guk bakarrik ez dugu txikizioa gelditzerik izango. David gara

Goliaten aurka, baina ez dakite habaila hura sareak direla gaur egun, jende gehiagorekin harremanetan egon ez bagina aspaldi hilko gintuzten.

Nola dago indigenen mugimendua Mexikon egun? Duela ia 25 urte eztanda handia egon zen EZLNren inguruan baina egun informazio gutxiago heltzen zaigu.

EZLN baino gehiago da Mexikoko mugimendu indigena. Hura aldarria izan zen, mugarria, herrialdeko mugimendu indigenak ikustarazteko. Hasi ginen elkar ezagutzen eta gure burua aitortzen. Orain eskuartean duguna Indigenen Gobernu Kontseilua da, eta bestelako sektore zanpatuekin inoiz baino elkartuago gaude. Badira nazioarteko kapitalaren goseagatik jazarritako lurralde eta giza talde ugari, argitu gabeko sarraskiak... Hor dago María de Jesús Patricio *Marichuy* presidentetzarako hautagai indigenak lau hilabetez egin duen ibilbidea. Bertan aukera izan dugu gure mugimendua indartzeko, adostasunak bilatzeko, ezberdintasunak gainditzeko. Ez da egongo etorkizunik Mexikon horrela egiten ez badugu. ■



ETako kide bat Suitzako Henri Dunant zentroko kideekin.

ETA: “Edonor izan daiteke terrorista, ez zuen zentzurik jarraitzeak”

Halaxe dio hitzez hitz Suitzako Alpeetatik ETAk Beranduegiko erredakzioari bidali dion komunikatu laburra: “Katalan gogaikarri horiek daude, rap kantari are gogaikarriagoak, poliziak seinalatzen dituzten irakasleak, pitokeriak idazten dituzten txiolariak, parandazale sakandarrak, futbol taldeetako hooliganak, kilometro bertikalak egiten dituzten mendizale pitzatuak, batzuetan podemitak... edonor izan daiteke gaur egun terrorista. Ez zuen

zentzurik gure bidearekin jarraitzeak. Ezin diogu merkatuaren lehiari eutsi. Eragile ugari daude guk baino beldur handiagoa ematen dutenak. Aurki egingo ditugu publiko zuloen GPS koordinatuak, inork pistolak-eta baliatu nahi balitu bakeroetara jolasteko. Eta ez hori bakarrik, herritik jaio ginenez, herriari itzuliko diogu urteotan metatutako esperientzia: topatu ditugun onddoleku onenen koordinatuak ere emango ditugu”.

SAREAN ARRANTZATUA

Gora Langileen Eguna!



Hotela guztiona da



Urkulluk argitu du Euskotreneneko agerraldia ez dela Patxi Lopezen plagio bat, omenaldia baizik

Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak Donostiatik Hendaiaiko ibilbidea egin zuen Euskotrenen, Kanboko nazioarteko bake-topaketara joan beharrean. Horrek eragin dituen kritikak ikusita, Urkulluk azalpenak eman ditu: “Batzuek Patxi Lopezekin konparatu egin naute, ETAREN erabaki garrantzitsuen egin... egunean tren batean bidaiatu egiteagatik. Adierazi egin nahi dut ez diodala aurre-

ko lehendakariari plagiorik egin egin, omenaldia baizik. Egin, egin”. Lehendakariak, gainera, balioa eman dio trenbide-azpiegiturek Euskal Herrian bakea ekartzeko egin duten lanari eta aurreratu du datorren urtetik aurrera Jaur-laritzaren eslogana aldatu egingo dela: “Tren bat bezala goaz”, izango da EAJ-ren, barka, EAEko Gobernuaren marka berria.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa





ERAKUSKETA SAN TELMO MUSEOA 2018-3-24 // 2018-6-17

ARGAZKI-LIBURUEN FENOMENOA

+ GABRIELA CENDOYA BERGARECHE COLLECTION

Antolatzailea:



Hauekin ekoiztua:



Erakunde babesleak:



Patrono pribatuak:



San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1 20003 Donostia
T. 943 481 580 / www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa